

Gatazkak ebazteko bestelako bideak (*Alternative Dispute Resolution*) araudi prozesal zibilean, jurisdikzioaren galga ala akuilu?

Ixusko Ordeñana Gezuraga
Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea (UPV/EHU)

Pandemia ondorengo garaian, eta haren ondorio larriak epaitegien funtzionamenduan gaintitzeko asmoarekin, Espaniako legegileak «Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Prozesalari buruzko Lege Proiektua» aurkeztu du. Haren berrikuntza nagusia gatazkak ebazteko bide egokiak dira, arau orokor moduan, epaitegi zibiletara joan ahal izateko derrigorrezko baldintza bihurtu dituelarik. Gainera, prozesu zibila martxan dela ere haren erabilera suspertu egin da. Horien inguruko irakurketa kritikoa egingo dugu, batez ere, Botere Judizialarekin duten harremanean sakonduz. Zer dira, jurisdikzioaren galga ala akuilu?

GAKO-HITZAK: Teknika estrajudizialak · Gatazkak ebazteko bestelako bideak (*Alternative Dispute Resolution*) · Gatazkak ebazteko bide egokiak · Jurisdikzioa · Gatazkak ebazteko estatuaren sistema.

Alternative Dispute Resolution techniques in civil procedure regulation, brake or revulsive of jurisdiction?

After pandemic, and in order to overcome its serious effects on functioning of courts, Spanish legislator has presented «Procedural efficiency of public justice service» bill. Its main novelty are the Adequate Techniques of Conflict Resolution, converted, as a rule, into a mandatory condition to enter to civil courts. They are also strengthened once the civil process has begun. The aim is to make a critical reading about them, delving, mainly, into their relationship with the Judiciary. What are they brake or revulsive of jurisdiction?

KEY WORDS: Extrajudicial techniques · Alternative Dispute Resolution · Adequate Dispute Resolution · Jurisdiction · State system of conflict resolution.

1. Konponbide berria betiko arazoetarako? Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Prozesalari buruzko Lege Proiektuak *gatazkak ebazteko bide egokien alde egindako apustua. Testuingurua eta gaia jorrazteko pausoak*

Jakina denez, prozesalistak urteak daramatzagu epaileen lana nola hobetu daitekeen aztertzen, nahiz eta osasun-pandemiak gaia berriro mahai gainean jarri duen. Agindutako alarma-egoera eta auzitegien derrigorrezko geldialdiaren ondoren, gobernuak egoerari aurka egiteko 3/2020 Legea, irailaren 18koa, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalena eta antolaketa-neurriena eman zuen¹. Lege horrek, bere hitzaurrean, Justizia Administrazioa egoera berrira moldatu beharra azpimarratu zuen, horretarako herritarrak erdigunean jarriz, haien eskubideak eta beharrak babestuz, haien epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidearen egikaritzan. Gainera, etorkizunean egongo zen auzi andana iragartzen zuen, Epai Botereak susperraldi ekonomikoan paper garrantzitsua jokatu behar zuela nabarmenduz. Horrela, bada, aipatutako legeak 2021eko maiatzean Espainiako Gobernuak, zehazki, Justiziako ministroak, aurkeztutako «2030 Justizia Plana»ren ideia nagusiak aurreratu zituen. Plan horrek 10 urterako lan-programa jasotzen du, eta, zuzenbide-estatua eta justiziarako sarbidea «herria transformatzeko palanka» bihurtzen dituen heinean, «Justizia Zerbitzu Publikoarentzako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana» zehazten du². Horrenbestez, justizia hobetzeko enegarren planaren aurrean gaude. Esan bezalaxe, prozesalistak urteak daramatzagu Espainiako justizia nola hobetu daitekeen bueltaka. Haren funtzionamendua egokiena ez dela argi egonda³, erdibideko iritzia alde batera eginda, doktrina banatuta agertzen da. Batzuek mantentzen dute Epai Botereak edo jurisdikzioak baliabide gehiago behar dituela, horrela eraginkortasuna hobetuko duela ziurtatuz. Beste batzuek gatazken konponketa desjudizializatu behar dela defendatzen dute, horretarako *gatazkak ebazteko bestelako bideak* (aurrerantzean, GEBB) (ingelesez, *Alternative Dispute Resolution*) (aurrerantzean, ADR) erabili behar direla aldarrikatuz. Aspaldiko eztabaida sutsu honetan, egiaztatuko dugun moduan, gu bigarren iritzikoak gara, baina kontua da, oraingoan, legegileak berak egin duela GEBBen alde, «2030 Justizia Plana» garatuz, emandako Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun

1. Lege honen nondik norakoak labur azaltzen ditu: Bujosa Vadell, Lorenzo Mateo (2021): «Ley 3/2020, de 18 de septiembre, de medidas procesales y organizativas para hacer frente al COVID-19 en el ámbito de la Administración de Justicia», *Ars Iuris Salmanticensis: revista europea e iberoamericana de pensamiento y análisis de derecho, ciencia política y criminología*, 1, 368-371.

2. Bi plan horien ezaugarri eta edukiari so egiten diegu, Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2022): «Educación para la desjudicialización o una experiencia piloto de coordinación entre el equipo docente y la tutoría de un centro asociado dirigido a fomentar las competencias necesarias para la investigación jurídica mediante el empleo de metodologías activas», in Sonia Calaza, Ixusko Ordeñana (zuz.), *Externalización de la justicia civil, penal, contencioso-administrativa y laboral*, Tirant lo blanch, Valentzia, 145. or. eta hur.

3. Oso argi, gaztelaniaz «la justicia es un cachondeo» dio: Ramos Méndez, Francisco (1987): «¡La justicia es un cachondeo!», *Justicia: revista de derecho procesal*, 1. Berdin, Ramos Méndez, Francisco (1987): «Sigue el cachondeo», *Justicia: revista de derecho procesal*, 3. Autore berak espainiar justizia ustelduta dagoela esan zuen, Ramos Méndez, Francisco (1987): «Oigan todos: ¡La justicia está podrida!», *Justicia: revista de derecho procesal*, 1. Beste lan batean, espainiar justizia kinka larrian dagoela mantendu eta egiaztatu zuen. Horrela, Ramos Méndez, Francisco (1987): «Estado crítico de la justicia», *Proserpina: revista de la Universidad Nacional de Educación a Distancia*, 6.

Prozesalari buruzko Lege Proiektuan (aurrerantzean, JZPEPLP). Jarraian azalduko dugu Espainiako Ministro Kontseiluak 2022ko apirilaren 12an onartu eta 2022ko apirilaren 22an Gorte Nagusien Aldizkari Ofizialean publikatu ondoren, egun izapidetzan dagoen JZPEPLP horrek nola ulertzen dituen GEBBak. Aurretik baina, ADR teknika horiek zer diren, nola sortu eta eboluzionatu duten eta zer indar eta ahulezia duten azaldu behar dugu, horretarako beharrezkoa izanik aitzinetik jurisdikzioaren beraren ezaugarriei so egitea, bera baita haien jaiotzaren hazi. Horiek guztiak jorratuko ditugu ikerketa-lan honen lehen zatian. Bigarrenean, berriz, JZPEPLPk GEBBak *gatazkak ebazteko bide egoki* (aurrerantzean, GEBE) nola bihurtu dituen aztertuko dugu, legegileak aurreikusi dituen haien ezaugarri, oinarri eta funtzionamenduari erreparatuz. Bereziki ikuskatuko dugu lege-proiektuaren berrikuntzarik garrantzitsuena, hots, prozesu zibilean, demanda jarri ahal izateko, GEBEak derrigorrezko betekizun bihurtu izana. Aldi berean, behin prozesu zibileko auzibitarrea sortu ondoren ere arras indartu direla frogatuko dugu. Horrenbestez, gure lanaren izenburuari erantzunez (gatazkak ebazteko bestelako bideak, araudi prozesal zibilean, jurisdikzioaren galga ala akuilu?), gaiaren irakurketa kritiko-subjektiboari ekingo diogu. Horretarako, gure ustez, XXI. mendean herritarrei gatazkak ebazteko estatuak bermatu behar dien sistemak nolakoa izan behar duen azalduko dugu, JZPEPLPk nola mamitzen duen aztertuz. Gure formulazioa —zuzenbide jurisdikzional dibertsifikatua deitzen dugunaren inguruan eraikia— eta araudi berria erkatu eta Epai Boterearen eta GEBE-en arteko ezkontza biribila izan daitekeela erakutsiko dugu, bigarrenak lehenengoaren, eta oro har, sistema osoaren eraginkortasunerako tresna egokia izan baitaitezke, aldi berean GEBE-ek beren funtzioa betetzeko —gatazka juridikoen konponbide baketsua, alegia— epaileen lana ezinbestekoa izanik. Are gehiago, gatazkak ebazteko estatuaren sistemaren erdigunean Epai Botereak behar duela egon egiaztatuko dugu.

2. Jurisdikzioa: indarrak eta ahuleziak. Gatazkak ebazteko bestelako bideen iturria edo hazia

2.1. Jurisdikzioaren ezaugarriak

Jurisdikzioa gatazka juridikoak konpontzeko estatuaren sistema da, Epai Boterearen inguruan antolatua eta Espainiako Konstituzioak (aurrerantzean, EK) bereziki aurreikusitakoa (VI tituluari, 117-127 artikulua bitartean)⁴. Sistema horren garrantziaren erakusgai, zuzenbidearen adar bat haren antolaketa eta funtzionamenduaren azterketaz arduratzen da. Usadioz zuzenbide prozesala deitua izan denaz eta guk, Montero Arocaren teoriari jarraikiz, zuzenbide jurisdikzionala deitzen dugunaz ari gara⁵. Oro har, jakintzagai hori eta bereziki haren ikasketaren

4. Horregatik, gatazkak ebazteko sistema edo bide publikoaz mintza gara. Adibidez, Subijana Zunzunegui, Ignacio José (2002): «Apunte reflexivo sobre la justicia», *Jueces para la Democracia. Información y Debate*, 44.

5. Autore honek aspaldi esan zuen ordura arte Zuzenbide Prozesal bezala ezagutuak, prozesuaz aparte, jurisdikzioa eta akzioa zituela aztergai. Are gehiago, ikasgaiaren erdigunea Epai Botereak egikaritzen duen jurisdikzioa dela aldarrikatu zuen, azken horren bitartez epaile eta magistratuek EK-k agintzen dien funtzio jurisdikzionala egikaritzen baitute eta herritarrek, aldiz, EK-k berak aintzatesten dien epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea asetzen. Haren formulazioa azaltzen du: Montero Aroca, Juan (1984): «Del derecho procesal al derecho jurisdiccional», *Justicia*, 2 eta Montero Aroca, Juan (2000): *El derecho procesal en el siglo XX*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 19-45 or.

objektua aditzeko, labur-labur bada ere, hura eratzen duten hiru elementuei erreparatu behar diegu, hots, jurisdikzioari, akzioari eta prozesuari.

Jurisdikzioa da zuzenbide jurisdikzionalaren eta estatuaren gatazkak ebazteko sistema publikoaren elementurik garrantzitsuena. Termino horrekin bi gauza izendatzen ditugu: bat, epai-organoen eta horiek osatzen dituzten epaile eta magistratuen taldea, eta, bi, aipatutako organoetan persona horiek betetzen duten funtzioa. Bi adieretan baina, jurisdikzioa bat eta bakarra da, bat eta bakarra delako Espainiako herritik eratortzen den Espainiaren subiranotasuna ere⁶. Horregatik, bat eta bakarra da organo jurisdikzionalen antolaketa eta haietan diharduten epaileen kidegoa. Era berean, bat eta bakarra da jurisdikzio-ahala (epaileen agintzeko eta obedituak izateko gaitasuna) eta funtzio jurisdikzionala (legea kasu zehatzera nahitaez aplikatzeko ahalmena), nahiz eta, lurraldeari dagokionez, Espainia Autonomien Estatu bezala antolatuta egon⁷.

Jurisdikzioa ulertzeko beharrezkoa da epaileen agintari-izaerari so egitea. Jurisdikzio-ahala duten heinean, estatuaren eta Espainiako herritar ororen izenean, gatazka juridikoak era loteslean —*supra partes* arituz— ebazten dituzte, indarrean dagoen zuzenbidea aplikatuz. Zehatzago, teknikoki haien funtzioa —funtzio jurisdikzionala deitua, alegia— zuzenbide objektiboa kasu zehatzari aplikatzean datza, epaituz eta epaitutakoa betearaziz —adierazpen eta exekuzio-tutoretza aplikatuz, hurrenez hurren (EKren 117.1 eta 9.1 art.)— eta bi horiek kautelazko babesaren bitartez bermatuz (1/2000, urtarrilaren 7ko, Prozedura Zibileko Legearen —aurre-rantzean PZL— 5. art.). Bereziki azpimarratu behar da epaile eta magistratuek funtzio jurisdikzionalaren monopolioa daukatela (EKren 117.3 art.) aldi berean, egin dezaketen lan bakarra izanik (EKren 117.4 art.)⁸. Funtzio hori era ezeztazinean betetzen dute, bakarrik legearen menpe, beren independentziaren berme gisa, eta legeen izaera hertsatzailea babesteko⁹.

6. Herri bakar eta subiranotasun bakar horretatik eratortzen da Espainiako Epai Botere bakarra eta bere funtzio jurisdikzionala (EKren 1.2 art.).

7. Izan ere, Autonomien Estatuan (EKren 2. eta 143. artikulua), lurralde-antolaketa gainera, bat eta bakarra da Espainia osoan funtzio jurisdikzionalaren ardura duen Epai Boterea edo jurisdikzioa. EK-k berriaz jasotzen duen errealitate juridikoa da (117.5 art.), batasun jurisdikzionalaren printzipioa deitzen duguna, alegia. Sakontasunez azaltzen dute kontu hori: Ibarra Robles, Juan Luis, Da Silva Ochoa, Juan Carlos (2005): «El principio de unidad jurisdiccional en el Estado Autonómico», in Miguel Ángel, García Herrera, José María, Vidal Beltrán, Jordi Sevilla Segura, (koor.), *El estado autonómico: integración, solidaridad, diversidad*, 1 bol., Colex, Madril, 315-330.

8. Esklusibitate jurisdikzionalaren printzipioa deitzen denaren bi aldeak dira, herritarentzat oinarritzko berme gisa eratzen dena. Epai-sistemaren eraketan haren garrantzia azpimarratzen du: Requejo Pages, Juan Luis (1989): *Jurisdicción e independencia judicial*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril, 62. or. Era berean, herritarrei beren gatazka eman aurretik berori ezagutzeko beti epai-organo eskumendun bat dagoela bermatzen zaie (EKren 24.2 art.), guztiz debekatuta egonik haien *ex post facto* sortzea edo eratzea (EKren 117.6 art.). Azken ideia hori legeko epailearen edo legeak aurretiaz zehaztutako epailearen printzipio bezala ezagutzen duguna da. Horren ondoreak aztertzen ditu: Burgos Ladrón de Guevara, Juan (1980): *El juez ordinario predeterminado por la ley*, Civitas-Universidad de Córdoba, Madril eta De Diego Díez, Luis Alfredo (1998): *El derecho al juez ordinario predeterminado por la ley*, Tecnos, Madril.

9. Horregatik esaten da estatuaren funtzio jurisdikzionala (epaileek egikaritutakoa) beharrezkoa dela zuzenbidearen eraginkortasuna eta estatuaren iraupena bermatzeko. Horrela, askoren artean, Montoro Ballesteros, Alberto (1980): «Conflicto social, derecho y proceso», in *Derecho y proceso. Estudios jurídicos en honor al Profesor Antonio Martínez Berrocal*, Murtziako Unibertsitatea, Murtzia, 494. or.

Iragarri bezalaxe, zuzenbide jurisdikzionalaren bigarren ardatza akzioa da. Epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea arautzen duen EKren 24. artikuluan konstituzionalizatua, akzio edo akzio-eskubide deitzen diogu herritarrei epaileen aurrean aintzatesten zaizkien eskubideen multzoari. Horien artean lehena, Auzitegi Konstituzionalaren (aurrerantzean, AK) jurisprudentziak azpimarratu bezala, demandatzaileak prozesua martxan jartzeko eta demandatua horren ondoreetara meneratzeko daukan gaitasuna da¹⁰. Akzioaren parte dira, era berean, babesgabeziaren debekua, ebazpen baterako eskubidea, horren exekuziorako eskubidea, helegiteetarako eskubidea eta kautelazko babeserako eskubidea. Akzioak, gainera, beti, legearen errespetua eta hark prozesuan alderdiei aintzatesten dizkien bermeena galdatzen du¹¹.

Azkenik, prozesua, aipatutako beste bi elementuen (jurisdikzioa eta akzioa) tresna da. Epaileek funtzio jurisdikzionala, legearekin bat, prozesuan eta prozesuaren bitartez gauzatzen dute. Aldiz, herritarrek prozesuan egikaritzen dituzte akzioak daramatzen eskubideak.

Jurisdikzioaren deskribapen labur hori burutzeko, bi kontu gehiago azpimarratu behar ditugu. Batetik, jurisdikzioaren espezializazioa. Bere batasunean, jurisdikzioa 4 ordena jurisdikzionaletan antolatzen da (ordena zibila, zigor-ordena, ordena administratiboa eta lan-ordena) (6/1985, Epai Boterearen uztailaren 1eko Lege Organikoaren (aurrerantzean, EBLO) 9. art.), eta horietako bakoitza dagokion zuzenbide materialari dagozkion gatazkez arduratzen da. Bestetik, hurrengo atalean aztertuko ditugun jurisdikzioaren ahuleziak edo gabeziak ahaztu gabe, ezin da ukatu Epai Boterea benetan sistema bat denik, koordinazio osoan, aipatutako hiru elementuen inguruan antolatua, haren osagai guztiak legeak arautu eta segurtasun juridikoz hornitzen ditu. Horri gehitu behar diogu, oinarri gisa, sistema honek estatuaren bermea daukala, haren botere baten inguruan antolatzen baita, eta, legearekin bat, haren xedea (gatazka juridikoak konpontzea) beti gauzatzen dela; izan ere, jurisdikzio-ahala utziezina izanik, herritarrek epaileei gatazka bat aurkeztean, epaileak ebaztera behartuta baitaude¹². Jurisdikzioaren beste sendotasun batzuk dira: aipatutako ordena jurisdikzionalen araberako espezializazioa; elkarren osagarri diren hiru babes judizialak (adierazpenezkoa, exekutiboa eta kautelazkoa);

10. Horrela, AKren 65/1985, maiatzaren 23ko sententzia. Izan ere, eskubide hori akzioak biltzen dituen gainerako eskubideak egikaritzeko *prius logica* da. Horrela, akzio-eskubidearen eraginkortasunerako duen garrantzia azpimarratuz: AKren 19/1981, ekainaren 8ko sententzia, AK 111/2000, maiatzaren 5ekoa eta AKren 11/2001, urtarrilaren 29ko sententzia.

11. EK-k berak, herritarrei, arlo jurisdikzionalan, beste berme batzuk aintzatesten dizkie, bere 24.2 artikuluan, hala nola legeak aurretiaz zehaztutako epaile arrunterako eskubidea, letratuaren defentsa eta laguntzarakoa, herritarrei beren kontra burututako akusazioaren gainean informazioa jasotzekoa, beharrezko atzerapenik gabeko eta berme guztiak dituen prozesu publiko baterakoa, norberaren defentsarako beharrezkoak diren frogabideak erabiltzekoa, norbere buruaren kontra ez deklaratzekoa eta errugabetasun-presuntziorakoa. Horietariko gehienak zigor-prozesurako aurreikusten dira, legegileak hartan aritzen diren herritarrak bereziki babestuz. Eskubide horiek guztiak jorratzen ditugu: Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2014): *El Estatuto jurídico de la víctima en el Derecho jurisdiccional penal español*, Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati, 39-60 or.

12. Ezin ahatz daiteke Zigor Kodearen 10/1995, azaroaren 23ko Lege Organikoarekin bat (aurrerantzean, ZK) (448. art.), zigortu egiten direla (sei hilabetetik lau urte arteko enplegu edo kargu publikorako desgaikuntzarekin), legezko arrazoirik azaldu gabe edo legearen iluntasun, askiez edo isiltasunaren aitzakian, epaitzeari uko egiten dioten epaile eta magistratuak.

sententziak motibatzen behar izan (EKren 24 eta 120.3 art.); epai irmoen gauza epaituaren ondorena (PZLren 207. art.), eta, azkenik, legeak oro har eta akzio-eskubideak bereziki herritarrei aintzatesten dieten berme-multzoa.

2.2. **Gatazkak ebazteko bestelako bideak jurisdikzioaren hobekuntzarako tresna**

Aipatutako sendotasunez gain, hitzaurrean esan bezala, jurisdikzioak baditu bere ahuleziak. Horiek izan ziren AEBn sortu eta mundu guztian zehar hedatu den *Alternative Dispute Resolution* mugimeduaren hazi¹³. Zehazki, bere burua *Critical Legal Studies* autoizendatu eta errealismo juridikorako buelta aldarrikatu zuen Harvardeko Unibertsitateko autore talde baten jardueraren testuinguruan¹⁴, 1976an, Roscoe Poundek emandako hitzaldiaren hirurogeita hamargarren urteurrena ospatzeko jardunaldi batean, gizarteko agente juridiko garrantzitsuenak (epaileak barne) bildu ziren, herritarrek Justizia Administrazioarekin zuten atsekabea aztertzeko (*The causes of popular dissatisfaction with the Administration of Justice*). Han mahaigaineratu ziren estatuaren sistema jurisdikzionalaren akats guztiak: posizioen bikotasunaren eta aurkakotasun-izaeraren ondoreak (alderdiak arerio bihurtuz), urruntasuna herriarengandik, teknizismoa, ondorengo gatazka gehiagoren sortzea, geldotasuna, kolapsoa, garestitasuna... bereziki azpimarratu ziren herritarrei justiziarako sarbidea bermatzeko eta, ondorioz, haien eskubide eta beharrak asetzeko ezintasuna¹⁵. Horrenbestez, agerian geratu ziren jurisdikzioaren gaitz endemikoak, haien izaeraren ondorio zuzenak, eta orduan, lehen aldiz, aro garaikidean, Justizia Administrazioaren barneko eta inguruko legegileak gatazkak ebazteko teknika edo mekanismo pribatuak sortzeko eta erabiltzeko beharra aldarrikatu zuten. Prozedura horien elementu nagusiak azpimarratu ziren: epaitegietatik kanpo sortu eta erabiliak, alderdien borondatearen autonomian izan behar zuten oinarri (*consensus decision making*) eta erregela malgu eta informalekin garatu behar ziren, herritarrei justiziarako sarbidea bermatuz eta gatazkak alderdi bien onuran konponduz (*win-win*)¹⁶.

13. Bi dira, bereziki, mugimendu honen sehaska AEB izatearen eragileak. Batetik, Ipar Amerikako Estatu Federazioa munduko gizarterik gatazkatsuen da, bertan (gurean ez bezala) jurisdikzioa inoiz ez da izan gatazkak ebazteko biderik erabiliena. Bestetik, korrante hori etorkinen eta talde erlijiosoen sinesmen eta praktiketatik elikatzen bada ere, bertako merkataritza eta lan-usadioetan ere badu oinarri. Elementu horien inguruan: Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2009): *La conciliación y la mediación en cuanto instrumentos extrajudiciales para solventar el conflicto laboral*, Comares, Granada, 79-89.

14. Bereziki aldarrikatu zuten gizarte-errealitatea Zuzenbidean txertatu beharra, gatazka juridikoetan eta horren ebazpenean indar eginez. Are gehiago, jurisdikzioaren akatsak salatuz, kritikoki eta formalismoaren kontra, gatazka juridikoak ebazteko epaitegietatik kanpoko mekanismo eta teknikak indartzeko beharra aldarrikatu zuten. Testuinguru hori sakon aztertzen dugu: Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2009): *Análisis crítico del arbitraje laboral y su entorno en el ordenamiento jurídico español*, Civitas-Thomson Reuters, Iruña, 22-29 or.

15. Batzar-agiriak jasotzen dituzte: AAAA Levin-Wheller (ed) (1979): *The Pound Conference: Perspectives of Justice in future*, Minnesota, Saint Paul eta Sander, Frank E.A. (1976): *Conference on causes of popular dissatisfaction with the Administration of Justice*, National Center for State Courts, Washington.

16. Teknika horietaz gehien gustatzen zaigun definizioa, ondoregoek eman zuten: Lieberman, Jethro K., Henry, James F. (1986): «Lessons from the Alternative Dispute Resolution movement», *University Chicago Law Review*, 3: «ADR is a set of practices and techniques that aim to permit legal disputes to be resolved outside the courts for the benefit of all disputants; to reduce the cost of conventional

Bereziki nabarmendu behar dugu, ADR mugimenduaren barruan, orokorrean, eta aipatutako biltzarrean bereziki, ez dela sekula jurisdikzioaren ezinbestekotasuna zalantzan jarri. Haratago, gatazkak ebazteko prozedurak dibersifikatzeko beharra adierazi zen, funtzio jurisdikzionala eta haren baliabide mugatuak haren parte-hartzea ezinbestekoa den kasuetarako gordez. Beraz, ADR teknikak, orain Espainiako legegileak egiten duen bezala, jurisdikzioa hobetzeko, hots, eraginkorrago egiteko, tresna gisa ulertu ziren.

Ordutik hona baina, ADR teknikak AEBn eboluzionatu egin dute, eta han *Court-annexed* edo *Court related* ADR direlakoei erreparatu behar diegu. Zer dira horiek? Gatazkak ebazteko mekanismo pribatuak jurisdikzioaren eremuan erabiltzea, justizia eraginkorrago egiteko asmoarekin. Formulazio hori Pound Konferentzian bertan aurkeztu zen eta Sander Harvardeko Zuzenbide Fakultateko irakasleak eratu zuen. Berak asmatu zuen ate anitzeko auzitegia (*multidoor court-house*), gatazkak ebazteko hainbat prozeduraz (ateak) osatua (jurisdikzioa bera eta ADR teknikak). Bertan, herritarrak gatazka bat aurkezten duenean, funtzionarioak gatazka konpontzeko prozedura egokienaz aholku ematen dio, hark kasuan kasuko, bere ingurumari eta beharizanen arabera, egokiena iruditzen zaiona aukera dezan¹⁷. Guretzat guttiz inspiragarri den ideia horren bidean, egun, AEBn ohikoa da jurisdikzioaren eremuan ADR teknikak erabiltzea, bai alderdiek adosten dituztelako beren borondatearen autonomiaren egikaritzan¹⁸, bai legebiltzarren edo gobernuaren xedapen batek hala derrigortzen duelako¹⁹. Posible da baita ere epaile batek agintzea teknika horietakoren bat erabiltzea²⁰. Argi gera bedi, azken bi kasuetan derrigorrezkoa dela akordio bat lortzen ahalegintzea, ez hura lortzea.

Deskribatutako egoeran, ordura arte gatazkak ebazteko bestelako bideek (GEBB, euskaraz; ADR, ingelesez), «bestelakoak» (Alternative, ingelesez) izateari utzi diote eta jurisdikzioaren «osagarri» bihurtu dira. Hala ere, hain famatuak egin diren ADR siglak mantentze aldera, orain hasierako «A», *Adequate*-rekin (egokiarekin, alegia)

litigation and the delays to which it is ordinarily subject; or to prevent legal disputes that would otherwise likely be brought in courts». (euskaraz: «ADR praktika eta tekniken multzo bat da, beraien helburua eragindako alderdi guztien onurako, gatazkak epaitegitik at konpontzea; prozesu judizialarekiko kostuak eta atzerapenak murriztea eta auzitegietera eramatera bideratuta leudekeen gatazka juridikoak ekidetzea izanik»). Definizioa xehatzen dugu, ADR tekniken elementu desberdinak eta existitzen diren mekanismoak azalduz, bereziki azpimarratuz beraien ezaugarria den malgutasuna, beren sortze eta egituraketara ere luza daitekela, Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2009): *Análisis crítico del arbitraje laboral y su entorno en el ordenamiento jurídico español*, op.cit., 29 or. eta hur.

17. Irakasle horrek ideia hori Pound Konferentzian emandako bere ponentzian («Varieties of Dispute Processing») defenditu zuen eta deskribatzen du: Sander, Frank E.A. (1995): «Alternative methods of dispute resolution: an overview», in Michael Freeman (ed.), *Alternative Dispute Resolution*, Dartmouth, Sidney, 97. or. Beste lan batean, autoreak berak aitortu zuen, *multidoor courthouse* hori deskribatzeko ideia erraza baina implementatzeko zaila dela. Horrela: Golberg, Stephen B., Green, Eric D., Sander, Frank E.A., *Dispute Resolution*, Little, Brown and Company, Boston, 515. or. Antzeko zerbait *mutatis mutandis* sortzen du, azalduko dugun bezala, JZPEPLPk, bere laugarren Xedapen Gehigarrian, Gatazkak Ebazteko Bide Egokien Zerbitzuak (aurrerantzean, GEBEZ) aurreikusten dituenean, Justizia Ministerioak eta erkidego-autonomoek eratuak, beren eskumenen eremuan, eta «egoki deritzen forman».

18. *Private contract ADR* edo *contractual ADR* direlakoak.

19. *Legislative or administrative mandated or imposed ADR* direlakoak.

20. *Court ordered ADR*.

identifikatzen da²¹. Hau da Espainiako legegileak JZPEPLPn erabili duen terminoa: gatazkak ebazteko bide egokiak (GEBE)²².

ADR tekniken azterketa bukatzeko, esan beharra dago baina, benetan jurisdikzioaren hobekuntzarako tresna bezala erabili nahi badira, haien indar edo sendotasuntzat jo diren ezaugarriak (gatazkan dauden alderdien adostasunean oinarritutako izaera pribatista eta indibidualista —nahierako justizia—; egituraketa eta garapenean malgutasuna; konfidentzialtasuna; azkartasuna...),aldi berean, desabantailatzat ere jo direla. Horrela, gatazka juridikoaren ikuskera edo ikusmolde pribatista eta indibidualistan oinarrituta, interes soziala babesten ez dutela esan da²³; ez dutela, jurisdikzioak bezala, Zuzenbidearen garapenean laguntzen²⁴; haien emaitzak sendoak ez direla²⁵; ez dutela egia materiala bilatzen; ez dutela mota orotako gatazkak ebazteko balio²⁶; ez dagoela irizpiderik jakiteko noiz jurisdikziora noiz ADR tekniketara joan²⁷; ez dutela alderdien berdintasuna babesten; legerik eta bermerik gabeko justizia eskaintzen dutela²⁸; hirugarrenaren inpartzialtasuna eta neutraltasunik eza; jurisdikzioaren antzeko haien formalizazio eta instituzionalizazio altua; jurisdikzioz kanpoko teknika desberdinen arteko koordinazio falta...²⁹ Azken kritika horren inguruan, gehitu behar da ezen ADR teknikak alderdien askatasunean oinarritzen direnez eta beren jarduera ebatzi beharreko gatazka juridiko zehatzera moldatzen dutenez, ukaezina dela ez dagoela teknika desberdinen arteko antolaketa koordinatu, jarraitu eta sendorik, jurisdikzioan gertatzen den bezala³⁰.

21. Izenean eman den aldaketa horretan indar egiten dute: AAAA in Dora Fried Schnitman (ed) (2000): *Nuevos paradigmas en la resolución de conflictos. Perspectivas y prácticas*, Granica, Bartzelona, 162. or. eta Schiffrrin, Adriana (1996): «La mediación aspectos generales», in Julio Gottheil, Adriana Schiffrrin (koor.), *Mediación: una transformación en la cultura*, Paidós, Buenos Aires, 39. or. Baita ere, Martín Nájera, María Teresa (2005): «La mediación intrajudicial», *Cuadernos de Derecho Judicial*, 5.

22. Gaztelaniaz, Medios Adecuados de Solución de Conflictos (MASC).

23. Bereziki gogor: Fiss, Owen M. (1984): «Against settlement», *Yale Law Journal*, 93,

24. Gatazka zehatza baino ez dutelako bide eta helburu.

25. Aurrekoaren ildotik, kasu zehatzerako bakarrik balio dutelako.

26. Xedaezineko gatazkak derrigorrez epaile aurrean konpondu behar direlako.

27. Kritika hori bereziki, Menkel-Meadow, Carrie (1995): «Whose dispute is anyway? A philosophical and democratic defense of settlement (in some cases)», *The Georgetown Law Journal*, 83.

28. Gogor, ildo horretatik: Fiss, Owen M. (1984): «Against settlement», op. cit. Espainian, antzeko iritziarekin, ADR teknikak Zuzenbide estatua arriskuan jartzen dutela mantenduz, Méndez, Héctor Óscar (2000): «La conciliación. Su revitalización como medio alternativo de resolución de conflictos», *Revista Vasca de Derecho Procesal y Arbitraje*, 1.

29. Gaitzespen horiek guztiak sakontasunez azaltzen ditugu; Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2009): *Análisis crítico del arbitraje laboral y su entorno en el ordenamiento jurídico español*, op.cit., 64. or. eta hur.

30. Honetan sakontzen dugu; Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2017): «Bienvenidos arbitraje comercial y de inversiones y resto de mecanismos extrajudiciales al Derecho jurisdiccional diversificado, rama del Derecho que ordena la solución de los conflictos jurídicos», *Arbitraje: revista de arbitraje comercial y de inversiones*, 3.

3. Gatazkak ebazteko bestelako bideak gatazkak ebazteko bide egoki bihurtu dira

3.1. Haren ezaugarri, oinarri eta funtzionamendua Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Prozesalari buruzko Lege Proiektuan

JZPEPLPk gatazkak ebazteko bide egokiak (guretzat GEBE) definitzen ditu bere lehenengo artikuluan: «Edozein motatako jarduera negoziatzailea, lege honetan edo beste batzuetan tipifikatutakoa, zeinetara gatazka bateko alderdiek fede onez jotzen duten hari auzibidetik kanpoko konponbidea bilatzeko, dela beren kabuz, dela hirugarren baten esku-hartzearekin»³¹. Horrela, hurrenez hurren, definizio horrek honakoak aipatzen ditu: (1) auzibidetik kanpoko tekniken metodoa (jarduera negoziatzailea), (2) teknika zehatzak (JZPEPLPk eta beste lege batzuek aintzatesitakoak), (3) galdatzen duten fede ona (ebazpen-metodoaren elementua), (4) helburua (gatazkaren auzibidetik kanpoko ebazpena) eta (5) elementu pertsonala, alderdiek zuzenean edo hirugarren baten laguntzarekin jardun dezakete. Jarraian zenbait ñabardura beharrezkoak dira.

Lehenik eta behin, gure ustez egokia da mekanismo estrajudizialen metodoa aipatzea. Jakin dakigunez, horiek negoziazioa dute ardatz, hots, alderdiek, beren bordondatearen autonomian oinarrituta, egiten duten transakzio-lagapena. Amerikarrek *consensus decision making* eta JZPEPLPn Zioen Azalpenak (aurrerantzean ZA) «adostasunezko bidea»³² deitzen dutena da. Horren harira bereziki azpimarratu behar da araudi berriak negoziazioa GEBE guztien metodo gisa aintzatesteaz gain, negoziazioa bera, hau da, alderdiek hirugarren baten laguntza gabe egindakoa, mekanismo autonomo gisa aintzatesten duela. Ildo horretatik, GEBE-etan hirugarren pertsonaren papera dela eta —azaltzen ari garen definizioaren azken elementua—, esan beharra dago doktrina nagusia dela —ez baina ahobatekoa— ADR teknikek hirugarren neutral (*third neutral*) baten parte-hartzea galdatzea, haren lana alderdiei beren gatazka konpontzeko burututako negoziazioan laguntzea izanik. Logika horrekin, negoziazio hutsa, gatazkako alderdiek berek burututakoa, hirugarrenen inolako laguntzarik gabe, ADR teknika bat ez delako usteari eusten diote³³. Kontrako norabidean baina, eta Espainiako legegilearen alde, negoziazio hutsa edo alderdien elkarrizketa, hirugarrenen inolako laguntzarik gabe, ADRen formarik bakunena eta informalena dela uste dutenak ere

31. Gaztelaniaz: «Cualquier tipo de actividad negociadora, tipificada en esta u otras leyes, a las que las partes de un conflicto acuden de buena fe con el objeto de encontrar una solución extrajudicial al mismo, ya sea por sí mismas o con la intervención de un tercero».

32. Gaztelaniaz, «vía consensual».

33. Horrela, Moore, W. Kenneth (1995): «Mini-trials in Alberta», *Alberta Law Review*, 1, Goldberg, Steven H. (1997): «Wait a minute. This is where I came in. A trial Lawyer's search for Alternative Dispute Resolution», *Brigham Young University Law Review*, 653, Rolph, Elizabeth, Moller, Erik, Petersen, Laura (1996): «Escaping the courthouse: private Alternative Dispute Resolution in Los Angeles», *Journal of Dispute Resolution*, 2 eta Hardy, Stephen, Chapman, Chris, Gibson, Jerry (2003): *ADR in employment law*, Cavendish Publishing Limited, London, 2. or. Haien alde, ADRa arautzen zuen lege iparramerikarrak berak, 1998ko *Alternative Dispute Resolution Act* delakoak, epaibidez kanpoko mekanismoak «epailearen erabakia ez den prozesu oro, non hirugarren inpartzial edo neutral batek parte hartzen duen alderdiei gatazka ebazten laguntzeko» bezala definitu zituen (651. art.).

badira³⁴. Gu azken iritzi horretakoak gara, beraz, Espainiako legegilearen erabakia txalotu egiten dugu.

Aztertzen ari garen definizioak GEBE teknikei egiten dien erreferentzia dela eta, legegileak *numerus apertus* bezala eratu nahi izan dituela uste dugu, nahiz eta hori adierazteko erabiltzen duen esamoldea («jarduera negoziatzailea, lege honetan edo beste batzuetan tipifikatutakoa») ez izan egokiena; izan ere, GEBE-en existentzia berauek aurretik legegileak aintzatestearen menpe uzten baitu. Zuzenagoa da, gure irudiko, JZPEPLPn ZAetan egiten den baieztapena, legearen xede «lagundutako negoziazio-mekanismoen katalogo bat sartzea, beste edozein metodo eraginkorretara irekita» dela esaten denean. Horrek horrela behar du, ADRen garapenaren ezaugarria den malgutasuna bere sorrera eta eraketan ere agertzen delako. Horrenbestez, alderdiek, kasu zehatzean, behar duten teknika estrajudiziala sor dezakete, betiere, indarrean dagoen legedia errespetatuz, zuzenbide-estatuak galdatzen duen bezala (EKren 1 art.) eta gutxieneko berme batzuk jasota. Horren harira, gogora ekarri behar dugu ezen gure ordenamendu juridikoak gatazkak ebazteko indarraren erabilera debekatu egiten duela³⁵ eta aitatutako bermeak, bereziki, epaileek ADR teknikei ematen dieten laguntza eta haiekiko egiten duten kontroletik eratorzen direla. Edozelan ere, JZPEPLPk honako GEBE zehatz hauei egiten die erreferentzia: negoziazioa, bitartekaritza, adiskidetze «publikoa»³⁶ (honen barne notarioak, jabetza-erregistratzaileak eta Justiziaren Administrazioaren letratuak eginikoak desberdindu)³⁷, adiskidetze pribatua, eskaintza lotesle konfidentziala eta aditu independentearen iritzia. Era berean, ezin uka daiteke legegileak protagonismo berezia ematen diola bitartekaritzari, ADR tekniken ereduari alegia, ziur asko, gure ordenamenduan egun arte, bereziki araututako prozedura estrajudiziala bakarria delako³⁸.

GEBE-en definizioan legeak jasotzen duen hirugarren elementua (fede ona) («... gatazka baten alderdiek fede onez hartara jotzen dutelarik....») haien metodoaren parte da, baita haren oinarri ere, nahiz eta azken horrekiko askatasunaren aipuren falta sumatzen dugun; izan ere, berau da, esan bezalaxe, haren oinarri, ADR tekniken alfa eta omega. Egia da JZPEPLPk autonomia pribatuaren printzipioa aintzatesten duela GEBE-en garapenean («alderdiak askeak dira hitzarteko edo amore emateko,

34. Iritzi honetakoak dira, esaterako: Mose, Darek, Kleiner, Brian H. (1999): «The emergence of Alternative Dispute Resolution in Business today», *Equal Opportunities International*, 5-6 eta Wang, Margaret (2000): «Are alternative dispute resolution methods superior to litigation in resolving disputes in international commerce?», *Arbitration International*, 2.

35. ZK-k galarazten du (455. eta 172. artikulua). Horregatik, ADR teknikei baita «gatazkak ebazteko bide paketsuak» ere deitzen zaie. Gatazka juridikoak ebazteko indarra erabiltzeak zuzenbide-estatuak suntsitzen duela mantentzen du, Ramos Méndez, Francisco (1982): «La quiebra de la justicia», *Justicia: revista de derecho procesal*, 1.

36. Ez du legelariak horrela deitzen baina guk laguntza ematen duen hirugarrenaren izaera publikoa aintzat hartuta eta hark sortu duen teknika berritik (adiskidetze pribatua) desberdintzeko, horrela izendatzen dugu.

37. Zerrenda horretan bake-epaileak egindakoaren falta sumatzen dugu, 15/2015, Borondatezko Jurisdikzioaren, uztailaren 2ko legeak (aurrerantzean, BJL) arautua (bereziki, 140. art.).

38. 5/2012, uztailaren 6ko, kontu zibil eta merkataritzakoetan bitartekaritzaren legean (aurrerantzean, KZMBL). Horrela, JZPEPLPk lege horretara bidalketa egiten du, esaterako, mugaz haraindiko gatazkak definitzeko (2.1 art.) edo GEBE-en eremutik at geratzen direnak zehazteko (3.2 II art.). Gainera, araudian zehar askotan aipatzen da bitartekaritza, teknika estrajudizialen eredu gisa.

baliabide hauen bitartez, bere eskubide eta interesen gainean») (3.1 art.), baina aipamen mugatua da, askatasunak edozein mekanismo estrajudizialen hasiera, garapena eta bukaera baldintzatu behar baititu. Ziur gaude epaiketa zibilera sartu ahal izateko legegileak derrigorrezko betekizun bihurtu izanak (4., 6. eta 9. artikulua) baldintzatu duela definizio hori, nahiz eta argi daukagun *lege ferenda* askatasuna, esandako terminoetan, epaitegitik kanpoko baliabideen kontzeptuan ezinbestean jaso behar dela. Era berean, JZPEPLPk fede ona GEBE-etara jotzeko betekizun gisa bakarrik aipatzen du berariaz. Egia da, bestalde, nahiz eta araudi berriak ez duen fede ona teknika estrajudizialen garapen osoan galdatzen, bai adierazten duela, bere kasuan, lortutako akordioa ezin dela fede onaren (eta legearen eta ordena publikoaren) kontrakoa izan (3.1). Ildo horretatik, eta definizioaren laugarren elementuan indar eginez, ezin ahatz dezakegu ADR tekniken xedea jurisdikzioaren akatsak gaintzea dela, herritar guztiei justiziara sarbidea bermatuz, gatazkak alderdi bien onurarako ebatziz³⁹. Horretarako, alderdien askatasuna dute oinarri, jurisdikzioaren ezaugarri den espiritu adbersatiboa alde batera utzi eta fede onez burututako lankidetzan sakonduz, elkarrizketaren bidez, espazio informal, malgu eta konfidentzial batean beren gatazkarentzat konponbiderik onena bilatuz⁴⁰. Azken hori, esan bezalaxe, adostasunaren eta bat etortzearen fruitua da. Horrela, jurisdikzioaren ezaugarri diren indar, hertsapen eta derrigortasunaren aurrean (oinarrietan, formetan, tokietan, denbora eta garapenean) alderdien artean ulermenerako toki baketsuak sortzearen aldeko apustua egiten da, gatazkaren konponbidearen protagonistek beren elementu guztiak (hirugarrena, tokia, denbora, formak...) kontrolatuz⁴¹, akordio sortzaileak eraikitzea erraztuz, deseberdintasunen kariak ezagutuz, harreman juridikoak mantenduz eta etorkizuneko gatazkak ekidinez. Azken finean, eta JZPEPLPren ZAetan esaten den moduan, lortzen den justizia herritarrek propiotzat du, hurbilagoa, eraginkorra eta azkarra da, sistema legitimazio sozialaz, efizientziaz eta sostengarritasunaz hornituz.

39. Zetzu horretan, gatazkak «era emankorren» ebatzteaz (*in a productive way*) hitz egiten da, mota orotako kostuak (ekonomikoak, denborari dagozkionak, psikikoak...) murriztuz eta ebazpenen kalitatea hobetuz. Era berean, teknika hauen ezaugarria den *win-win* famatua aipatzen da.

40. Horretarako «alderdiak mahaian esertzen dituzte» («brings affected parties to the table») ondorengoan esanetan: Ehrmann, John R., Stinson, Barbara L. (1994): «Human Health Impact assessment (HHIA): the link with Alternative Dispute Resolution», *Environmental Impact Assessment Review*, 14. Jurisdikzioaren ezaugarri diren norgehiagoka, haserrea eta mendekua baztertuz, alderdiek beren komunikazioa hobetzearen alde egiten dute, gaizki ulertuak argituz. Bide horretatik, oso egoki: Six, Jean Francois (1997): *Dinámica de la mediación*, Paidós, Bartzelona, 12. or. ADR teknikak kultura liskartsu batetik komunikazio-kultura batera iraganbide bezala definitzen ditu. Oraindik, adierazkorrago; Berzon, Michael (1995): «Settlement disputes, without boxing gloves: Alternative Dispute Resolution offers a way to resolve conflict without wrecking business relationships», *American Shipper*, bol. 37, abendua, gatazkak «boxeoko eskularru gabe» ebatzteaz mintzo da. Espainian, «justizia koexistentziala»-z berba egin zuen: Almagro Nosete, José (1988): «Alternativas al proceso jurisdiccional», *Boletín de Información del Ministerio de Justicia*, 1489. Zetzu horretan, JZPEPLP, bere ZAetan «banatutako espazioetan hitz egindako konponbideez» («soluciones dialogadas en espacios compartidos») ari da.

41. Gauzak horrela, Picker, Bennett G. (2001): «ADR. New challenges, new roles and new opportunities», *Dispute Resolution Journal*, otsaila-apirila, ADR-ren akronimoko A (*Alternative*), *Active*-gatik (*Dispute Resolution*) aldatzen du, bereziki azpimarratuz, jurisdikzioan alderdiek erakusten duten pasibitatearen aurrean, epaile bat baita bere etorkizunari buruz erabakitzen duena, teknika estrajudizialean bere gatazkaren ebazpenaren egile direla.

JZPEPLPk GEBE-en inguruan ematen duen araudiari so eginez, mekanismo horiek alderdi bien eskariz erabiltzea aurreikusten da. Era berean, alderdiek prozedura horiek «epailearen deribazioz» erabiltzea arautzen da (3.2 art.); noski, auzibitartea existitzen dela, hau da, behin epaiketa zibila hasita izango da.

Araudi berriak teknika horien bitartez konpon daitezkeen gatazkak ere xedatzen ditu: kontu zibil eta merkataritzakoen gainekoak, baita mugakideak ere, betiere xedagarriak badira. Kontrako ildotik, lege hau ezingo zaie aplikatu lan-arloko, zigor-arloko eta lehiaketan inguruko kontuei, ezta sektore publikoko erakunde bat alderdi denean ere, eragindako zuzenbidearen arloa edozein izanda. Horrek ez du esan nahi azken arlo horietan ADR teknikarik erabil ezin daitekeenik, baizik eta aztertzen ari garen araudiaren mugetatik kanpo egingo dela. Bereziki aipatzen dira, teknika estrajudizialen erabilera beraietan esanbidez baztertuz, Emakumearen kontrako Indarkeriaren arloko Epaitegiek ezagutzen dituzten materia zibilak (EBLOren 87 ter artikulua, 2 eta 3).

Mekanismo horien izapidetza, edo haren prozedura⁴², hirugarren baten (*third neutral*) laguntzarekin edo laguntza gabe, guztiz edo zati batzuetan, bitarteko telematikoak, bideokonferentzia edo ahotsa edo irudia transmititzeko antzeko beste batzuk erabiliz egin daiteke. Horretarako baina, araudi berriak galdatzen du alderdiek horrela adostu dezatela eta parte-hartzaileen nortasuna eta indarrean dagoen legediaren errespetua berma dadila. Gainera, diru-zenbatekoaren erreklamazioa 600 euro baino gutxiagokoa denean, bitarteko horien erabilera lehenesten da, alderdietako batek horietaz baliatzea ezinezkoa duenean izan ezik (7. art.).

GEBE-en ezaugarri nagusietako bat da negoziazio-prozeduraren eta erabilitako dokumentazioaren pribatutasuna, konfidentzialtasunak alderdiak negoziatziora joaten diren (edo ez) eta gatazkaren objektuari eragiten ez diolarik. Beste hitz batzuetan, konfidentzialtasunaren betebeharrak parte hartzen duten alderdiei eta hirugarren neutralari eragiten die, azken horrekiko, gainera, sekretu profesionalerako betebeharrak eta eskubidea aldarrikatuz, berau urratuz gero, legeak aurreikusten duen erantzukizuna sortuz. Horrenbestez, horiek guztiek debekatuta daukate epaile aurreko prozesu batean edo arbitraje-prozesu batean GEBE-en ingurukoak adieraztea edo/eta horietan erabilitako dokumentuak aurkeztea. Noski, salbuespenak egon badaude⁴³ (8. art.). Guztiz lotuta, JZPEPLPk pertsona fisikoen datuak legearekin bat tratatzea galdatzen du (8.4 art.).

42. Legegilea, guztiz oker, «negotiazio prozesua»-z mintzo da, GEBE-etan agertzen ez dena, horietan ez baita azaltzen epaileen aurrean ematen den alderdien bikotasuna, azken finean, prozesuaren beharra justifikatzen duena. Esan dugun bezala, teknika estrajudizialetan alderdiek hizketarako, errespetuzko eta fede oneko espazio bat sortzen dute, beren gatazkari ebazpen egokiena emateko. Honi prozedura deitu behar zaio.

43. Berariaz aipatzen dira, honakoak: (1) berariaz eta idatziz alderdiek elkarri edo hirugarrenari horretarako baimena ematen diotenean; (2) kostuen tasazioa edo haien salbuespena helegiten diren kasuak eta bakarrik ondore horietarako; (3) zigor-ordenako epaile batek hala eskatzen duenean, motibatutako erabakiz, eta (4) ordena publikoko arrazoiengatik beharrezkoa denean. Azken supostu horretan legeak bereziki aipatzen ditu adingabekoaren interes nagusiak hala galdatzen duen edo pertsona baten osotasun fisiko edo psikikoan kalteak ekiditeko beharrezkoa den kasua.

Prozedura horietan letratuaren laguntza erabiltzeko aukera edo eskubidea aurreikusten da, kasu bakar batean derrigorrezkoa izanik: eskaintza loteslea erabiltzen denean, salbu eta gatazkaren zenbatekoa 2.000 euro baino gutxiagokoa denean edo lege sektorial batek abokatuaren parte-hartze hori ez duenean galdatzen eskaintza hori egiteko edo onartzeko. Era berean, eta alderdien desberdintasuna ekiditeko, letratuaren laguntza beharrezkoa izan gabe, alderdietako batek erabili nahi duenean, horren berri besteari emateko betebeharra jasotzen da (5. art.). Normala denez, alderdietako bakoitzak bere abokatuari dagozkion ordainsariak ordainduko ditu. Gainera, bien artean adostuko dute hirugarren neutralari nola ordaindu. Ildo horretatik, arau berezi bat jasotzen da GEBE baten parte hartzeko galdatuak alde bakarrez errekeritzaileak izendatutako hirugarren neutralaren parte-hartzea onartzen ez duen kasurako: bigarrenak ordura arte sortutako ordainsariak pagatu beharko ditu (10. art.).

3.2. Prozesu zibilera sartu ahal izateko derrigorrezko betekizuna

JZPEPLPk ekarri duen berrikuntza nagusia hau da: prozesu zibilera joan ahal izateko, arau orokor moduan, aurretik GEBE baten erabilera derrigorrezkoa izatea. Salbuespenez, ez da betekizun hori galdatzen honako kasu hauetan: (1) oinarrizko eskubideen babes judizial zibila; (2) adingabeak babesteko har daitezkeen neurri zibilak; (3) nahasmendu psikikoagatik nahitaez barneratzeko baimen-eskaera (PZLren763. art.); (4) gauza edo eskubide bat kendu zaionari edo haren gozamina asaldatu zaionari haren edukitzearen babes sumarioa; (5) auzitegiak, izaera sumarioarekin, obra, eraikina, zuhaitza, zutabea edo antzeko beste edozein objektu, aurri-egoeran eta demandatzaileari kalteak eragiteko mehatxupear, eraistea ebatzea eskatzen duen uzia; (6) jokabide-arazoak dituzten adingabeak, babes-zentro espezifikotik sartzeari, egoitzetan eta adingabeak babesteko neurriak nahitaez betearazteko edo adingabeak itzultzeko edo itzultzeko gainerako lekuetan sartzeari, nazioarteko lapurretaren kasuetan, eta (7) borondatezko jurisdikzioko espedienteak hastea (4.2 eta 3. art.).

Ingurumari honetan, lehenengo eta behin, aurreikusten den arauketari erreparatuko diogu, ondoren haren balorazio subjektiboa egiteko.

Betekizun edo oinarri prozesal hori betetzeko⁴⁴, legeak —bai JZPEPLPk berak, bai sektore-legeek— aintzatsitako GEBE guztiek balio dute. Aipatutako eran, legegilearekin bat etorri gabe, gure ustez, legearekin bat *jarduten* duen edozein GEBEk balio du, eta alderdiek berek, kasuan-kasuan, mekanimo estrajudizial zehatza sortu —asmatu, ez esateagatik— dezakete. Edozein kasutan, antzekotasuna behar du egon teknika estrajudizialaren, negoziazio-objektuaren eta auziko objektuaren artean, «nahiz eta, bere kasuan, objektu horren gainean epaibidean egikaritu daitezkeen uziak alda daitezkeen» (4.1 art.). Legearen hitzez hitzekoa konplexua dela ukatu gabe, zuzenbide jurisdikzionaleko terminologia eta elementu propioak

44. Bereziki azpimarratu behar da legegileak «betekizun»-az mintzo dela, doktrinak «oinarri» erabiltzea egokiagozat jotzen badu ere, ondorengo egintza prozesalaren (demandaren onarpena, alegia) eraginkortasunerako ezinbestekoa delakoan. Guztien izenean, Banacloche Palao, Julio (2021): «Las reformas en el proceso civil previstas en el Anteproyecto de Ley de Medidas de Eficiencia Procesal: ¿una vuelta al pasado?», *Diario la Ley*, 9814.

GEBE-etara zabaldu nahi direlako⁴⁵, gatazkaren inguruko egitateek bi arloetan (prozedura estrajudizialean eta epaibidean) berdinak izan behar dutela, baina, *sensu contrario*, beren oinarri juridikoak edo haietatik eratortzen diren ondoreak desberdinak izan daitezkeela interpretatzen dugu.

Prozesu zibilera sartu ahal izateko betekizuna betetzeko teknika estrajudizialek jo daiteke alderdietako batek edo biek, adostasunez, eskatuta. Jakin dakigunez, behin prozesu zibila hasita ere, GEBE batera jo daiteke, baina kasu horretan, hark ez du aipatutako betekizuna beteko. Azken aukera hori, ikusiko dugunez, epailearen edo Justizia Administrazioaren letratuaren deribazioz eman daiteke, betiere, alderdien adostasunarekin. Testuinguru horretan legegileak xedatzen du alderdiak GEBE batera joateko aukerarekin ados egonda, zeinetara ezin hitzartu dabiltzanean, denboran lehena proposatu zenera joan beharko dutela (4.4 II art.).

Era berean, gatazka juridikoak ebazteko estatuaren sistema berrian, jurisdikzioaren eta ADR mekanismoen harremanaren erakusgarri, alderdietako batek besteari teknika estrajudizial bat hasteko egindako eskaerak akzio judizialen preskripzioa eteten edo iraungipena esekitzen du. Ondore juridiko horien hasiera eta bukaera ere aurrikusten dira. Horrela, preskripzioa etengo edo iraungitasuna esekituko da eskaera horren komunikazioa, errekerituari, errekeritzaileak duen beraren helbide pertsonalean edo lantokian edo aurreko harremanetan alderdiek erabilitako komunikazio elektronikoaren bidez egin izanaren berri errekeritzaileak duenean. Etentze edo esekitzeak akordioaren sinadura arte iraungo du, edo, bere kasuan, negoziazioak itun gabe bukatu arte. Era berean, preskripzio- edo iraungipen-epe horiek 30 egun naturaleko epean berriro zenbatzen hastea xedatzen da, errekeritutako alderdiak proposamena jasotzen duenetik zenbatzen hasita, baldin eta akordio bat lortzeko lehen bilerak bere horretan jarraitzen ez badu edo idatzizko erantzunik jasotzen ez bada (6.1 art.).

Bestalde, GEBEaren porrotaren ondoren eta derrigorrezko baldintza beteta, demanda zibila jartzeko epea aurrikusten da: urtebete, errekeritutako alderdiak proposamena jaso zuenetik edo, bere kasuan, GEBEa akordio gabe bukatu zenetik zenbatuta (6.2.I art.). Ildo horretan, arau berezi bat jasotzen da GEBE batean akordioa ahalegintzen den bitartean epaileei kautelazko neurri bat eskatzen zaienerako: demanda zibila kautelazko neurria eskatu zaion organo judizial berberaren aurrean jarri beharko da 20 eguneko epean, epe hori GEBEa akordio gabe bukatu denetik edo errekerituak proposamena jaso zuenetik, hasierako proposamenak erantzunik ez badu, zenbatuta (6.2 II art.).

Gainera, legeak, segurtasun juridikoaren bila, jurisdikzioz kanpoko teknikak emaitza (akordio, alegia) gabe noiz bukatzen diren zehazteko, hiru kasu desberdintzen ditu (9.4 art.). Horrela, (1) alderdi errekerituak proposamena jasotzen duenetik 30 egun natural igaro ondoren, akordio bat lortzeko lehen bilera egiten ez denean, edo idatziz erantzunik jasotzen ez bada; (2) lehenengo bilera egin eta 3 hilabete igaro ondoren akordiorik lortu ez bada, betiere, epe horretatik aurrera

45. Gure alde, Castillejo Manzanares, Raquel (2021): «Los métodos adecuados de solución de conflictos según el Anteproyecto de Eficacia Procesal», in Raquel Castillejo Manzanares, Ana Rodríguez Álvarez (zuz.), *Debates jurídicos de Actualidad*, Thomson Reuters Aranzadi, Zizur Txikia 2021, 359. or. UZTARO 126, 91-119

alderdiek, ados jarrita, beren kabuz edo hirugarren neutral baten laguntzarekin, negoziatzen jarraitu ahal izango dutelarik, eta (3) alderdietako edozein besteari, idatziz, zuzentzen zaionean, negoziazio-prozedura bukatutzat emanez, hori jasota geratuz, hala nahi badute.

GEBEak fruiturik ematen ez duenerako, eta aztertzen ari garen baldintza betetzen dela frogatzeko, legeak hori nola egiaztatu arautzen du, negoziazio hutsa gainerako teknika estrajudizialeetatik desberdinduz (9. art.). Bi kasuetan, dokumentuan jaso behar da ahalegina, nahiz eta hirugarren neutralik aritzen ez denean (negoziazio hutsaren kasua), alderdiek sinatutako edozein dokumentuk balio duen, haien nortasuna (bereziki, hasierako proposamena/k nork/nortzuek egin zuten/zituzten jasoz), data eta gatazkaren objektua jasoz. Gainerako mekanismoetan, alderdiak negoziazioan laguntzen aritu den hirugarrenak, haietako edozeinen eskariz, honakoak jasotzen dituen dokumentua eman behar du: (1) hirugarrenaren nortasuna, haren kualifikazioa, lanbide-elkargoa, kide den erakundea edo inskribatuta dagoen erregistroa, (2) alderdien identitatea, (3) eztabaidaren gaia, (4) izandako bileraren edo bileren data, eta (5) bi alderdiek prozeduran fede onez parte hartu dutela dioen adierazpen solemnea, dagokion agintaritzaren judizialaren aurrean ondorioak izan ditzan. Berariaz arautzen da errekeritutako alderdia agertzen ez denean edo GEBE batera jotzeko gonbiteari uko egiten dionean, zitazioa nola egin den, egin delako ziurtagiria eta haren jasotzearen data esanbidez jaso behar direla. Era berean, prozedura martxan jarri zuen alderdiaren asistentziarik eza ere espresuki jaso behar da.

GEBEak demanda zibila jarri ahal izateko legegileak derrigorrezko baldintza bihurtu izana baloratzuz, hurrengoko puntuan azalduko dugun zuzenbide juridikional dibertsifikatuaren gure teoriarekin bat etorritz, txalotu besterik ezin dugu egin. Gure ustez, ADR tekniken aldeko benetako apustu bat erakusten du, jurisdikzioa hobetzeko tresna izanik, Justiziaren zerbitzu publikoa sozialki legitimatuz eta berau eraginkortasunez eta sostengarritasunez hornituz. Hala ere, gure jarrera edo iritzia sostengatzeko bi elementu nabarmendu behar dira. Batetik, ez direla herritarrak akordio batera heltzera behartzen, ahalegintzera (hitz egitera, alegia) baino. Beraz, haien askatasuna zati batean baino ez da mugatzen, gure ordenamendu juridikoan zehar gatazkak epaitegitik kanpo ebazteko kultura eta horren ondorio eta fruitu guztiak zabaltzeko ahaleginetan. Guztiz lotuta, beren funtzioa bete dezaten, ezinbestekoa da teknika estrajudizialak ondo erabiltzea aldarrikatzea. Horretarako, nahitaezkoa da alderdien elkarrizketak galdatzen duen «fede ona» sustatzea, teknika horiek —JZPEPLren ZAen hitzetan— «ez daitezen degradatu ezta betekizun burokratiko hutsak bihurtu ere».

Gure iritziaren kontra baina, badaude beste uste batzuk, GEBEak epaibiderako sarrera-ate gisa erabiltzearen aldekoak ez direnak. Horretarako hainbat argudio ematen dituzte. Batetik, Espainiako historia prozesala gogoratzen dute, bereziki 1981eko PZL, non epai-organo beraren aurrean adiskidetze bat ezinbestekoa zen, gerora haren «emaitza ez oso onak» zirela-eta borondatezko bihurtzeko⁴⁶. Aldi berean, gure ordenamendu juridikoaren ezaugarri den transakzio-kulturaren

46. Honetan indar egiten du: Fernández Pérez, Ana (2022): «Los métodos alternativos de resolución del litigio como requisito de Procedibilidad», *La Ley. Mediación y Arbitraje*, 10.

falta azpimarratzen da⁴⁷. Baita ere epai bidezko babes eraginkorrerako oinarritzko eskubidea ahotan hartzen dute, epai-organoetara sarrera atzeratzen dutelako, askotan izapide burokratiko hutsa bihurtuz⁴⁸. Beste batzuek kostua aipatzen dute, herritarrek, araudi berriarekin, hirugarren neutrala eta, bere kasuan, haren abokatuak ere ordaindu behar dituztelako⁴⁹.

3.3. Prozesu zibilean zehar gatazkak ebazteko bide egokien sustapena

Aurretik ere, prozesu zibilari transakzio-akordio batekin bukaera emateko aukera bazela ukatu gabe, hura xedapen-printzipioak informatzen baitu⁵⁰, ezin uka daiteke JZPEPLPk GEBE-en bidez haren bukaera hitzartua sustatzen duela. Horretarako, PZLren 19. artikuluan aipatutako printzipioaren aintzatespen orokorrean aldatetak egiten ditu eta GEBE-etarako jotzeko aukerak gehitu, bai epaiketa arrunt bereziki arruntean, baita hitzezkoan ere. Ikusiko dugunez, kostuen inguruan egindako arauketa berria ere, zalantza gabe, espaniar ordenamendu juridikoan teknika estrajudizialak indartzera dator. Era berean, bigarren auzialdian, hots, apelazio-helegitea bitarteko, eta exekuzio- edo betearazpen-prozesuan ere teknika horien erabiltzea suspertzen da. Ikus dezagun.

Espaniako legegileak GEBE-ekiko egin duen apustu sendoaren islarik onena, xedapen-printzipioa arautzen duen PZLren 19. artikulua indartzea da, «gatazkak ebazteko beste edozein bide»-ri aipua eginez. Orain arte bitartekaritza eta arbitrajea baino ez ziren aipatzen. Gainera, ildo beretik, JZPEPLPren Bigarren Xedapen Gehigarriak egun PZLk bitartekaritzari egiten dizkion aipu guztiak edozein mekanismo estrajudizialki luzatzen dizkio. Bestalde, aipatutako xedapenak (19.5 art.), Justizia Administrazioaren letratuak, prozeduraren edozein momentutan, demandaren erantzunaren eta bista edo epaiketaren egintzaren artean, adierazpenezko epaiketetan edo betearazpen-agindu orokorraren ondoren, betearazpeneko prozesuetan, alderdiei GEBE batera jotzeko (deribatze) aukera aurkeztea aurreikusten du. Horretarako ebazpen motibatu bat galdatzen da akordio estrajudizial bat ahalbidetzen duten ingurumariak ematen direla justifikatuz.

Era berean, PZLren 415. artikulua aldatzen da, alderdiei, judizio aurreko entzunaldiaren aurretik, ADR teknika batera jotzea errazteko, horretarako PZLren 19.4 artikuluaekin bat, prozesuaren etetea eskatzeko aukera emanaz. Negoziazioak porrot egiten badu, alderdietako edozeinek etetea altxatzea eta entzunaldiarekin jarraitzeko eskatu ahalko du.

47. Oso kritikoa, Buendía Cánovas, Alejandro (2021): «Los MASC: la última ocurrencia del legislador para desatascar la Administración de Justicia», *Economist & Jurist*, martxoak 8.

48. Argudio hori, bitartekaritzaren inguruan, baino edozein GEBEri aplikagarri, Martín Diz, Fernando (2019): «Nuevos escenarios para impulsar la mediación en derecho privado: ¿conviene que sea obligatoria?», *Práctica de Tribunales: revista de derecho procesal civil y mercantil*, 137.

49. Askok erakusten dute argudio hori, bereziki, Buendía Cánovas, Alejandro (2021): «Los MASC: la última ocurrencia del legislador para desatascar la Administración de Justicia», op. cit.

50. Printzipio honen isla, ondorengoak aipatu behar ditugu bereziki: BJLk arautzen duen aurretiazko adiskidetzea (139-148. artikulua); prozesu zibila martxan dela alderdiei aintzatesten zaien xedapenerako eskubide orokorra, bitartekaritza edo arbitrajera jotzeko esanbidezko aipamenarekin (PZLren 19. art.); judizio aurreko entzunaldiaren hasieran aurreikusten den adiskidetze edo transakzio ahalegina (PZLren 415. art.); behin egitate liskartsuak finkatuta, judizio aurreko entzunaldian bertan, epaileak alderdiei gatazka akordio batekin bukatzeko egin diezaikekeen gonbidapena (PZLren 428.2 art.)...

Araudi berriak, judizio aurreko entzunaldiaren ondoren eta epaiketaren egintzaren aurretik, GEBE batera jotzeko aukera aurreikusten du, epaileari alderdiei teknika horietariko batera deribatzeke gaitasuna aintzatetsiz, oinarritzat akordio bat lortzeko aukera badela uste duenean. Horretarako, alderdi bien adostasuna behar da, epaileak ahozkoa izan daitekeen probidentzia bat emanez. Bere kasuan, negoziazioa judizio aurreko entzunaldiaren bukaera eta judizioaren egintzaren hasiera tartean garatzea aurreikusten da. Are gehiago, epe horren luzatzea ere —bakarrik behin— xedatzen da, aipatutako epea bukatu aurreko 15 egun arinago, alderdi guztiek horrela adosten badute, luzapen-epea bereziki adieraziz, eta egoera horretan Justizia Administrazioaren letratuak epaiketaren egintzarako data berri bat jarriko du. PZLren 429.2 artikulua berriak jasotzen duenez, baldin alderdiek akordio bat lortzen badute, auzitegiari jakinarazi behar diote, prozeduraren artxibatzea agindu dezan, aurretik haren homologazio judiziala eskatzeko aukera izanik.

Legegileak ADR teknikak hitzeko epaiketetan bertan ere sendotzen ditu. Horren adierazle, bistaren arauketan (PZLren 443. art.) berori eteteko aukera aurreikusten da (PZLren 19.4 art.), GEBE batera jotzeko, zeina antzua den, alderdietako edozeinek etetea altxatzeko eta bistarekin jarraitzeko eska baitezake. Kontrako kasuan (hitzarmena lortuz gero), alderdiek epaitegiari horrela adierazi beharko diote prozeduraren artxiboa agindu dezan, aurretik haren homologazioa eskatzeko beren eskubidea salbu.

Hitzeko epaiketetan bertan ere jasotzen da epaileak alderdiei GEBE batera jotzeko (deribatzeke) gonbita egiteko aukera, betiere, prozesuaren objektuari so eginez, frogaren praktikaren aurretik eta oinarriarekin akordio bat lortzea posible dela uste duenean eta Justizia Administrazioaren letratuak aurretik halako deribazio baten ahalegina egin ez badu. Alderdi guztiak deribazioarekin bat badatoz, prozesua eten egingo da, ahozkoa izan daitekeen probidentzia baten bitartez. Ataka honetan ere, epailea bera da negoziazioa gehienezko zein epetan luza daitekeen erabakiko duena. Horretarako kontuaren konplexutasunari eta ematen diren bestelako ingurumarietara erreferatu beharko die. Prozedura arrunt bereziki arruntetan gertatzen den bezala, eta termino berdinetan, epe honen luzapena aurreikusten da, baita alderdiek epai-organoari haren emaitzaren berri emateko beharra ere.

Iragarri dugun bezala, epaiketaren kostuen inguruan egiten den araudi berria, zalantza gabe, GEBE-en suspertze nabarmena dakar. Horrela, PZLren 245.5 artikulua berriak kostuak ordaintzera kondenatua den alderdiari haien salbuespena edo zenbatekoaren gutxitzea eskatzeko eskubidea aitortzen dio, kontrako alderdiari edozein GEBEren bitartez proposamen bat egin eta biak joanda, alderdi errekerituak hura onartu ez badu eta prozesu zibilari bukaera ematen dion ebazpen judiziala haren edukiarekin bat datorrenean. Ondore bera aurreikusten da hirugarren neutralak aurkeztutako proposamena ukatzen den kasurako, prozesu zibilean ematen den sententziaren edukia haren parekoa denean.

Judizios kanpoko teknikak finkatzeko eta indartzeko xede bera erakusten du PZLren 394. artikulua berriak. Horrekin bat, berriaz edo egintza eztabaidaezinen bidez, eta arrazoi zuzenik gabe, GEBE batean parte hartzeari uko egiten dion alderdiaren alde kostuak ez erabakitzea xedatzen da, horretarako deitua izan

bada, negoziazio-saiakera legez nahitaezkoa denean edo, alderdiak ados jarri ondoren, prozesu zibila martxan dela epaileak edo Justizia Administrazioaren letraduak erabaki dutenean (PZLren 394.1 art.). Are gehiago, egoera berebean (GEBE batean parte ez hartzea), kostuak ordaintzera kondenatzea aurreikusten da, nahiz eta demandaren onarpena zatikakoa izan⁵¹. Ildo beretik, ondorengo prozesu zibila ekiditea helburu duen GEBE batera gonbidatutako alderdiak horretan parte hartzeari uko egiten dionean, alderdi errekeritzailea kostuen kondenatik salbuesten da, Justiziaren zerbitzu publikoaren gehiegizko erabilera atzematen denean salbu (PZLren 394.4 art.).

Era berean, amore-emate kasuetan kostuen kondena arautzen duen PZLren 395. artikuluko berriak, demandatuak demandari erantzun aurretik amore ematen duenean salbuestea xedatzen duenak, bere jardueran fede txarra edo Justiziaren zerbitzu publikoaren gehiegizko erabilera atzematen denean izan ezik, fede txarra dagoela ulertzen du epailetaren aurretik edo behin hori martxan dela mekanismo estrajudizial batean parte hartzeari bizkarra eman bazaio.

Esan bezalaxe, gatazkak ebazteko judiziorik kanpoko tresnak ez bakarrik lehen auzialdian, apelazioan ere bultzatzen dira. Horrela, PZLren 456.1 artikuluari bigarren paragrafo berri bat gehitzen zaio. Haren esanetan, apelazio-helegitearen izapidetzan zehar, epaitegiak alderdiak edozein ADR teknikatarara igor (deribatu) ditzake, oinarriarekin oraindik akordio bat lortzea posible dela uste duenean. Aldarte horretan, alderdi orok bere adostasuna adierazten badu, idatziz edo xede horretarako deitutako agerraldi batean, etetea aginduko da, ahoz eman daitekeen probidentzia baten bidez, epe zehatz batera. Akordioa lortuz gero, osoa edo zatikakoa, dagokion homologazioa ematen dion autoa eman daiteke edo sententzian bertan jaso.

Zalantza gabe, GEBE-en indartze bezala irakurri behar dugu, hein berean, haien bidez lortutako akordioak betearazpen-titulutzat jotzea. Horretarako, PZLren 517. artikulua aldaketa aurreikusten da, haren bigarren atalean, bitartekaritzaren bidez lortutako akordioek eta arbitraje laudoen alloan, bestelako teknika estrajudizialen bidez lortutako akordioak aintzateste.

Exekuzio-prozesuan bertan, beraren etetea aurreikusten da, edozein momentutan, GEBE batera joateko. Horrela, PZLren 565.1 artikulua erekin bat, betearazpen-prozesuan zehar egikaritutako teknika estrajudiziala akordio gabe bukatzen bada, alderdietako edozeinek eska dezake prozesuaren etetea altxatzea. Alderantziz, negoziazio-prozedura arrakastatsua bada, hau da, akordioarekin bukatuz gero, alderdi betearazleak horren berri eman behar dio epaitegiari, eta hark betearazpen-prozesuaren artxibatzea agindu. Lortutako akordioa betetzen ez bada, edozein alderdik betearazpen-prozesua berriro martxan jar dadila eska dezake, azken horren objektua bete ez denera mugatuz.

Ezkontza eta adin txikikoen inguruko derrigorrezko betearazpenean ere, GEBE-en erabilera aurreikusten da (PZLren 776. art.).

Zentzuzkoa denez, kautelazko prozesuan, beste prozesu baten (adierazpenezkoa zein betearazpenezkoa) osagarri den heinean, ez da GEBE batera jotzeko aukera

⁵¹. Beraz, kasu honetako arau orokorra (alderdi bakoitzak bere gastuak ordaintzea) salbuetsiz.

aurreikusten. Kontrakoa, aldiz, aurrerago ikusiko dugunez, posible da: alderdiek GEBE batera jotzea, eta bitartean, kautelazko neurri judizial bat eskatzea, teknikaren eta, bere kasuan, ondorengo prozesu zibil baten azken emaitza ziurtatzeko xedearekin.

4. Araudi eta gatazkak ebazteko estatuaren sistema berriaren judizio kritikoa

4.1. Abiapuntua: zuzenbide jurisdikzional dibertsifikatuak arautzen duen gatazkak ebazteko estatuaren sistema. Gure teoria eta legegilearen eraikuntza

4.1.1. Zuzenbide jurisdikzional dibertsifikatuak arautzen duen gatazkak ebazteko estatuaren sistema

Arestian aipatutako Sander-en *multidoor courthouse* delakoaren bidetik, duela urte batzuk orain arte «zuzenbide prozesala» deitu den zuzenbidearen arloa «zuzenbide jurisdikzional dibertsifikatua» deitzea proposatu genuen, XXI. mendean gatazkak ebazteko estatuaren sistema ikasteaz arduratzen baita, haren barne-jurisdikzioa eta ADR teknikak jasoz⁵². Gure ustez, herritarrei edo gatazka juridikoaren alderdiei, askatasunez, beren gatazka ebazteko mekanismoa aukeratzeko laga behar zaie —jurisdikzioa edo tresna estrajudizialak—, azken horren eremuan, eta haren ezaugarri nagusi den malgutasunaren egikaritzan, kasu konkreturako prozedura zehatza sortzea ere posible dutelarik, betiere legearen errespetupean. Testuinguru horretan, gatazkak ebazteko estatuaren sistemaren⁵³ abal nagusia jurisdikzioa edo Epai Boterea da, oro har, zuzenbide-estatuan legea nagusitzen dela bermatzearen eta, zehazki, GEBEak laguntzearen eta kontrolatzearen arduradun. Horrela, bakarrik Epai Boterea erdigunean jarrita uler daiteke zuzenbide jurisdikzional dibertsifikatua, gatazkak ebazteko estatu garatu baten sistema eraginkorra aztertzen duen zuzenbidearen adarra, zeinak, alderdien askatasuna⁵⁴ oinarri hartuta, justizia⁵⁵ bermatzen baitu. Eskema honetan jurisdikzioa eta teknika estrajudizialak osagarriak dira eta ez baztertzailleak, gatazkak ebazteko estatuaren sistema bakarraren barnean batak bestea hobetuz.

Gure formulazioarekin bat, jurisdikzioaren eta GEBE-en abantailak eta desabantailak ezagututa, alderdien askatasuna gailendu behar da, beren beharrizan eta nahien arabera kasu konkretuetarako egoki deritzen prozedura aukeratu ahal izateko. Gu jurisdikzioa haren parte-hartzea ezinbestekoa den kasuetan soilik erabiltzearen aldekoak gara, hau da, interes publikoa tarteko, gatazkak ebazteko bestelako bideen jarduera ezinezkoa denean⁵⁶. Gainerako kasuetan baina, nahiz eta alderdiek askatasuna izan erabili nahi duten gatazkak ebazteko bidea aukeratzeko

52. Gure teoria sakon, Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2018): «Sobre la mejora de la justicia o su concepción en el marco del derecho jurisdiccional diversificado» in Manuel Jesús Cachón Cadenas, Justo Franco Arias (koor.), *Derecho y proceso: liber Amicorum del profesor Francisco Ramos Méndez*, 3 bol. Atelier,artzelona, 1771-1796 or.

53. Orain JZPEPLPk Justiziaren zerbitzu publikoa deitzen duena, eta bakarra dena, jurisdikzioak eta GEBE-ek osatutakoa.

54. Gure ordenamendu juridikoaren balio nagusia (EKren 1. art.).

55. Baita ere gure ordenamendu juridikoaren balio nagusia (EKren 1. art.).

56. Beraz, azken kasu honetan jurisdikzioak gatazka juridikoak ebazteko bere monopolio konstituzionala mantenduko du (EKren 117.3 art.).

—beti errespetatu beharrekoa, bestela EKren 24. artikulua urratzen baita⁵⁷—, teknika estrajudizialen erabiltzea suspertzearen aldekoak gara, eraginkorrakoak direlako⁵⁸, Epai Boterearen parte-hartzea haiek laguntzera eta kontrolatzera mugatuz. Azken ideia horri lotuz, argi eta garbi esan behar da ez dugula orain arte ADR teknika deituen erabilera ulertzen aipatutako berme jurisdikzionala gabe⁵⁹. Horregatik eta Sander irakasleak egituratutako *multidoor-courthouse*-aren bidetik, gatazkak ebazteko estatuaren sistema Justizia Auzitegien inguruan eratu beharko litzatekeela uste dugu⁶⁰. Horretarako, noski, lehenago gurean gatazken konponketarako gehiegizko jurisdikzionalizazioa⁶¹ eta horrek ezinbestean dakartzan epai-ebazpenen atzerapena eta kalitate eskasa, bereziki, eta liskar-kultura dominantea, oro har, gainditu beharko lirateke, ezinbestean. Era berean, halabeharrezkoa da judizioz kanpoko mekanismoak EKn jasotzea, estatuak herritarrei gatazkak ebazteko eskaintzen dizkien teknikak baitira, betiere Epai Botereak lagundu eta kontrolatuak⁶². Horrela bakarrik era daiteke XXI. mendeko justizia-paradigma, jurisdikzioak eta beste teknika osagarriek osatua, guztiak zuzenbide jurisdikzional dibertsifikatuaren barnean aztertzen direlarik.

4.1.2. *Legegileak Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun prozesalari buruzko Lege Proiektuan sortutako sistema*

Aurretik egiaztatutako moduan, jurisdikzioa, bere ahuleziak ahulezi, benetako sistema bat da, helburu konkretu batera zuzendutako hainbat elementu osagarri osatua baitago⁶³. Ezin daiteke gauza bera esan teknika estrajudizialez, haietako

57. Beraz, baita zuzenean Epai Boterera joatekoa ere.

58. Planteamendu honekin bat, ADR teknikak estatu sozialaren isla direla, herritarrei justiziarako sarbidea bermatzen dien heinean, mantentzen du: Barona Vilar, Silvia (1999): *Solución extrajudicial de conflictos. Alternative Dispute Resolution (ADR) y Derecho procesal*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 45. or. Antzean, Magro Servet, Vicente (2012): «La incorporación al derecho español de la Directiva 2008/52/CE por el Real Decreto-Ley 5/2012, de 5 de marzo, de mediación en asuntos civiles y mercantiles», *Diario La Ley*, 7852

59. Zentzu honetan, Esparza Leibar, Iñaki (2010): «El modelo clásico de Poder Judicial como elemento indispensable para la consecución de la justicia en la resolución de conflictos. La contribución de la RAC/ADR», in Katixa Etxebarria Estankona, Ixusko Ordeñana Gezuraga (zuz.), *La resolución alternativa de conflictos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 57. or. Baita ere, Ortiz Pradillo, Juan Carlos (2011): «Análisis de los principios informadores de la mediación en materia civil y mercantil», *Boletín del Ministerio de Justicia*, 2135.

60. Jarraian ikusiko dugunez, JZPEPLPk Gatazkak Ebazteko Bide Egokien Zerbitzuak (aurrerantzean, GEBEZ) martxan jartzea aurreikusten du, nahiz eta aipatutako gure ideiatik apur bat alderatzen diren.

61. Soletó Muñoz, Helena (2017): «La mediación, tutela adecuada en los conflictos civiles», in Ana Isabel Blanco García (ed.), *Tratado de mediación. Tomo I. Mediación en asuntos civiles y mercantiles*, Tirant lo Blanch, Valentzia 2017, 20. or. lanean, gehiegizko jurisdikzionalizazio horren arrazoitzat jotzen dira: herritarrentzat justiziaren doakotasuna; doako laguntza juridikorako eskubidearen aintzatespen zabala; epai bidezko babes eraginkorraren inflazioa, legegilearen eta epailearen eskutik («ziur asko diktaduraren sistemaren erreakzio gisa»); konponbide autokonpositiboen tradizio falta; abokatuen ordainsarien pribatizazio betearazpena eta horien artean akordio kulturaren falta.

62. Horretarako proposamen zehatza aurkezten dugu: Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2021): «Contribuciones al debate sobre la necesidad de constitucionalizar las técnicas extrajudiciales de conflictos en el ordenamiento jurídico español», in Sonia Calaza López, José Muñelo Cobo (zuz.), *El impacto de la oportunidad sobre los principios procesales clásicos: Estudios y diálogos*, Lustel, Madril, 343-374. or

63. Azaldu bezalaxe, jurisdikzioa edo Epai Boterea hiru oinarritzko elementuren inguruan (jurisdikzioa, akzioa eta prozesua) eratutako sistema da, bere helburua, gatazka juridikoak ebaztea delarik, legearen nagusitasuna bermatuz eta herritarren epai bidezko babes eraginkorraren eskubidea (EKren 24. art.) aseztuz.

bakoitza, definizioz, kasu konkretuan aplikatua, gatazka zehatzaren aurrean bere alderdiek aurkezten dituzten beharriaz erantzuten dielako, horretarako bereziki moldatuz⁶⁴. Hala ere, JZPEPLPk egiten duen eraikuntza berria benetako sistematzat jotzen dugu, elementu bakoitzak bere tokia duelako, eta denek helburu bakarra bilatzen dutelako. Tesi honek ondo merezi du bere osagaiak azaltzea hurrengoko lerroetan.

Gure ustez JZPEPLPk gatazkek ebazteko estatuaren sistema eratu du, edo beste hitz batzuetan, haiek konpontzeko mekanismoak dibertsifikatu ditu, herritarrei hainbat aukera emanaz. Zentzu horretan, arau horren ZA mintzo da «gure ordenamendu juridikoan, jurisdikzioaren alboan, epaitegitik kanpo gatazkek ebazteko beste bide egoki batzuk txertatzea»-z, ezinbestekotzat jotzen dena «Justiziaren zerbitzu publiko sostengarri bat finkatzeko». Horrenbestez, gatazkek ebazteko estatuaren sistema eta Justiziaren zerbitzu publikoa parekatzen dira, azken hori «herritarrei beren arazoa kudeatzeko biderik egokiena emateko gai izan behar da. Zenbait kasutan eskusiboki bide judiziala izango da, baina beste askotan adostasunezko bidea izango da aukera hobereana eskaintzen duena». Era berean, legegileak aintzatesten du «gatazkek ebazteko biderik egokienaren aukeraketak Justiziari kalitatea ematen dio(la) eta herritarrei gogobetetzea». Ildo horretatik, jurisdikzio-ahala eskusiboki auzitegi eta epaitegiei dagokiela gogoratuz⁶⁵, zera esaten da: «Justizia ez da bakarrik “Justizia liskartsuaren administrazioa”. Sistema oso bat da zuzenbidearen filosofia justizia deliberatiboa deitzen duen mugimenduan kokatzen dena eta gorputz judizialen eta abokatuaren monopolio ez dena, baizik eta gizarte zibilarena». Ez gatoz bat, berriz, legegileak ilustrazioaren eta prozesu kudeatzailearen esarari so egiten duen baieztapenarekin («Justiziaren tenpluan sartu aurretik, adiskidetasunaren tenplutik pasa behar da»⁶⁶); izan ere, GEBEak, zalantza gabe, elkarriketan oinarritutako justizia egiteko edo lortzeko tresna dira, haien eraginkortasuna zuzenbide konparatuan sobera egiaztatuta egonik⁶⁷. Beste gauza bat da, gure formulazioaren lerro nagusiaren ildotik, jurisdikzioz kanpoko teknikak Epai Botereak ematen dizkien bermeen mendeko izatea.

Ez da duda-mударik sistemaren (GEBE + Epai Boterearen gehiketa) helburuaren gainean. Legegilearen beraren hitzekin, egungo konstituzionalismoari aipamena eginez: zilegitasun soziala eta eraginkortasuna⁶⁸. Era berean —legegilearen ideiak laburbilduz—, gatazka juridikoak ebatzi behar dira, gizarte-bakea eta elkarbizitza bermatzeko, eta horretarako sistemak herritarrei «beren arazoa *kudeatzeko* biderik egokiena» eskaini behar die⁶⁹.

64. Hortaz, mekanismo estrajudizial batek ez dauka bestearekin zerikusirik, teknika hibridoak ere badirela kontuan hartuta. Esaterako, med-arb.

65. Esklusibitate jurisdikzionalaren printzipioa deitu duguna.

66. Gaztelaniaz, «antes de entrar en el templo de la Justicia, se ha de pasar por el templo de la concordia».

67. JZPEPLPk bere ZAn, bide estrajudizialez, hitzez hitz dio: «Jada zuzenbide konparatuan finkatuak».

68. Luzean, hitzez hitz «zilegitasuna, gure herritarrentzat justizia-sistemak izan behar duen konfiantza eta sinesgarritasun-maila bezala; eta eraginkortasuna, erantzun efikaz eta efizienteak sortzeko sistemaren gaitasun gisa».

69. Gatazka juridikoen «kudeatzea»-z mintzo gara ADR teknikak ez dutelako bakarrik haien konponketa bilatzen, baizik eta baita ere etorkizunekoak ekiditea.

Sistema osatzen duten elementuei erreparatuz, GEBE-ei dagokie «partekatutako espazioetan hitz egindako konponbide» diren heinean, «konfrontazio- eta krispazio-dinamika» apurtzea⁷⁰, gatazkan dauden alderdiek propiotzat, hurbiltzat, eraginkortzat, ulergarritzat eta nahiko azkartzat jotzen duten justizia erraztuz⁷¹. Horrela, esan bezala, sistemaren zilegitasun, efizientzia eta sostengarritasunera laguntzen dute. Horregatik ulertzen dugu legegileak GEBEak prozesu zibilera jotzeko derrigorrezko baldintza bihurtu izana eta behin prozesu hori martxan dela haien erabilera sustatu izana.

Epai Botereari sistema berrian dagokion paperari so eginez, araudi berriak beraren garrantzia aldarrikatzen du («argi utziz eztabaida ezina dela Epaille eta Auzitegiek egiten duten jurisdikzio-ahalaren garrantzi konstituzionala»), nahiz eta guk *lege ferenda* baieztapen sendoagoa edo biribilagoa nahiago genukeen, «Justiziaren zerbitzu publikoa Epai Boterearen inguruan antolatzen da» edo «estatuaren gatazkak ebazteko sistema, Epai Botereak kasu orotan lagundu eta kontrolatua»-ren antzekoak. Hala ere, ezin uka daiteke, esanbidez ez bada aintzatesten ere, JZPEPLPk argi erakusten duela, gatazkak ebazteko estatuaren sisteman, Epai Boterearen zentralitatea. Horrela irakurri behar dira GEBEak epaiketa zibilera jotzeko derrigorrezko baldintza bihurtzea (zalantza gabe, teknika horiek epaitegietara sartzea edo behintzat hurbiltzea dakarrena⁷²) edo haiek laguntzeko eta kontrolatzeko, epaileen babes deklaratio, exekutibo eta kautelazkoaren aplikaziopean, aurreikusten dituen elementuak. Lehenengo kontua jorratu dugu jada, bigarrena berehala landu eta egiaztatuko dugu.

Azkenik, jada aipatu ditugun eta JZPEPLPk sortzen dituen (Laugarren Xedapen gehigarria) Gatazkak Ebazteko Bide Egokien Zerbitzuei (GEBEZ) heldu behar diegu. Zehazki, Justizia Ministerioak eta erkidego autonomoak sortzea aurreikusten da, bakoitza bere eskumenen egikaritzan eta «egoki deritzen eran». Legeak bere gutxiengo funtzioak arautzen ditu⁷³: (1) GEBE-ei buruzko informazioa ematea herritarrei eta profesionalei; (2) dauden baliabideak administratzea; (3) lurralde horretarako GEBE-en profesionalen erregistroa kudeatzea eta kontrolatzea, dauden gainerako erregistroekin koordinatuta; (4) legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten hirugarren neutralen datuak herritarren esku jartzea; (5) organo judizialei GEBE-ei buruzko informazioa ematea eta deribazio judizialerako behar den laguntza ematea; (6) zerbitzu horren garapenaren kontrola, jarraipena eta estatistika egitea; (7) haien garapenean inplikaturik dauden kolektibo profesional, administrazio eta erakunde guztien jarduna koordinatzea, eta (8) GEBEak ezartzeko eta erabiltzeko beharrezkoak diren lanak egitea.

Aztertzen ari garen arauak bere helburua («herritarren sarbide unibertsala justizia-sistemara bermatzea») eta bere jardueran legeari errespetua ere xedatzen ditu.

70. Dinamika hori, nahiz eta legegileak esanbidez ez aitortu, epaileen jarduerarekin lotu behar dugu, berau auzian alderdien bikotasun-printzipioan oinarritzen delako eta haiek gatazkak heteronomoki edo *supra partes* (hau da, era loteslean) erabakitzen dituztelako.

71. Berriro, legegilearen hitzak erabilia.

72. AEBn *court-annexed ADR* edo *court-related ADR* deitzen denaren ildotik.

73. Beraz, beste batzuk ere izan ditzaketela uste dugu.

Zerbitzu horren baloraziori ekinez, argi-ilunak ikusten ditugu. Argien artean, Sander-en *multidoor-courthouse*-aren ereduari jarraikiz, gure ordenamendu juridikoan gatazkak ebazteko baliabideen dibertsifikazioa berma dezakeen elementu bezala ikusten dugu. Horrenbestez, GEBEak sustatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko haren funtzioak gorai patzen ditugu, baina, gure irudiko, haren arauketak ez du larregi indartzen epaile eta teknika estrajudizialen arteko zubi-lana. Oso mugatua ikusten dugu «organo judizialei GEBE-*ei buruzko informazioa ematea eta deribazio judizialerako behar den laguntza ematea*»-n datzan funtzioa. Ez da nahikoa. Gure ustez, GEBEZ horiek bulego judizialaren unitate bat beharko lukete izan, eta egoitza judizial bakoitzean gutxienez bat egon beharko luke. Gainera, zerbitzu horien ardurua Justizia Administrazioaren letratu batek beharko luke izan. Gure ustez, bi elementu horiek ezinbestekoak dira herritarrek GEBEZ horiek justiziaren sistemaren benetako parte direla atzeman dezaten.

Bestelakoan, bere xedea txalotuz (justiziara sarbidea bermatzea herritar orori), bere aurreikuspen orokorrak («Justizia Ministerioak eta erkidego autonomoak sortzea, bakoitza bere eskumenen egikaritzan, egoki deritzen eran») arduratzen gaitu, estatuko justizia-sistemaren ardaztat hartzen ditugulako, eta hori estatu osorako bat eta bakarra denez, erkidego autonomo guztietan era berdinean antolatu beharko litzatekeelako, bakoitzaren eskumenak (noski) salbu.

4.1.3. Epai Boterearen eta gatazkak ebazteko bide egokien arteko ezkontza biribila

Esan bezalaxe, gure irudiko, teknika estrajudizialak estatuaren gatazkak ebazteko sistema hobetzera, oro har, eta jurisdikzioa, bereziki, zuzenduta daude. GEBE-en funtzioa, lehenik eta behin, Epai Boterea eraginkorrago egitea da, eta ondorioz, justizia-sistema edo zerbitzu publiko osoa. Izan ere, teknika estrajudizialak erabilia konpontzen diren gatazkak, epai-organoen lana arintzeaz batera, horiei garrantzitsuagoak diren kontu eta liskarrak ebazteko denbora gehiago errazten diete. Bereziki azpimarratu behar dugu elkarriketak eta fede onak, askatasunez, hirugarren laguntzarekin (edo gabe), desberdintasun juridikoak ebazteko metodo gisa, gizartea gatazkagabetzen laguntzen dutela, etorkizuneko gatazkak ekidinez eta gure ordenamenduan barna transakzio-kultura bakegilea zabalduz. Hori aintzatetsita baina, era malguago edo zorrotzagoan, justizia egitea denez helburu, hau da, gatazka juridikoak legearekin bat ebaztea, ezin da Epai Boterea ahaztu edo alde batera egin. Are gehiago, bakarrik ebatz daitezke gatazka juridikoak Epai Boterearen laguntzarekin (beharrezkoa denean) eta kontrolarekin (beti). Beraz, esan dezagun ozen eta garbi: Epai Boterea da herritarren eskubideen, elkarbizitzaren eta bake sozialaren azken bermatzailea, horregatik gatazkak ebazteko sistemaren erdian kokatu behar da, kasu zehatzean parte hartu zein ez. Beraren existentzia bakarra da, nahiz eta ez jardun, GEBE batera doan herritarren berme nagusia. Jurisdikzioa da edozein GEBE*k* behar duen segurtasun juridikoaren iturria. Eta ez dago besterik. Horregatik uste dugu Epai Botere-GEBE ezkontza kasik perfektua dela, justizia balio utopikoa den heinean, beti delako guztiz egin edo lor ezina. Beste hitz batzuetan, lan honen izenburuari erantzunez, bata bestearen akuilu dira. Inoiz ez langa.

4.3. Epai Boterea gatazkak ebazteko estatuaren sistemaren erdigune eta gatazkak ebazteko bide egokien berme

Jarraian, Epai Botereak GEBEak bermez nola hornitzen dituen aztertuko dugu, jurisdikzioak sistemako erdigune izan behar duela agerian utziz. Arinago gogora ekarri behar dugu epaileek, beren jurisdikzio-ahalaren egikaritzan, «epaituz eta epaitutakoa betearaziz» (EKren 117.3 art.), funtzioa jurisdikzionala gauzatu, zuzenbide-estatuaren jadanekotasuna bermatzen dutela herritarren epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea (EKren 24 art.) asebetetzen duten bitartean. Zehazki, epaileek herritarren eskubideak asebetetzen dituzte adierazpenezko babesak, betearazpen-babesa eta kautelazko babesak egikaritzen. Horrela egiten dute, baita ere, demanda zibila jarri aurretik, eta horretarako baldintza bezala, herritarrek GEBE bat erabiltzen dutenean.

Epaileen adierazpenezko babesak GEBE-ei ematen dizkien bermeen inguruan, lehenik eta behin, gogoratu behar dugu, zenbaitetan, gatazka juridikoak eskubide xedaezinen ingurukoak direnean, haiek ezin erabil daitezkeela⁷⁴. Gainerako kasuetan, hau da, gatazka juridikoa eskubide xedagarrien ingurukoa denean, GEBE baten bidez akordio bat lortzen bada, eta alderdietakoren batek beronek legearen kontrako akats larri bat pairatzen duela uste badu, kontratuak deuseztatzen diren arrazoiengatik, epaileen aurrean deuseztasun-akzioa egikaritu ahal izango du. GEBE-ekiko Epai Botereak gauzatu duen kontrol hori herritarrentzat ezinbesteko bermea da, aurretiaz baitakite, teknika estrajudizialaren garapenean legez kontrako zerbait egiten bada, epaile batek hura deuseztatuko duela.

Kontrako kasuan, hau da, prozesu estrajudiziala antzua suertatzen bada, demanda zibila jarri ahal izateko baldintza beteta egongo da, bide judizialerako atea irekita izanik. Zentzu horretan, eta benetako sistema baten aurrean gaudelako frogara, gogoratu behar dugu alderdietako batek besteari teknika estrajudizial bat hasteko egindako eskaerak akzio judizialen preskripzioa eten edo iraungipena esekitzen duela. Azaldu bezala, preskripzioa etengo edo iraungitasuna esekiko da eskaera horren komunikazioa, errekerituari, errekeritzaileak duen beraren helbide pertsonalean edo lantokian edo aurreko harremanetan alderdiek erabilitako komunikazio elektronikoaren bidez egin izanaren berri errekeritzaileak duenean. Etete edo esekitzeak akordioa sinatu arte iraungo du, edo, bere kasuan, negoziatioak itun gabe bukatu arte. Era berean, preskripzio- edo iraungipen-epe horiek 30 egun naturaleko epean berriro zenbatzen hasiko dira, errekeritutako alderdiak proposamena jasotzen duenetik zenbatzen hasita, baldin eta akordio bat lortzeko lehen bilerak bere horretan jarraitzen ez badu edo idatzizko erantzunik jasotzen ez bada (6.1 art.). Edozein kasutan, GEBEaren porrotaren ondoren eta, derrigorrezko baldintza beteta, demanda zibila jartzeko epea urtebetekoa da, errekeritutako alderdiak proposamena jaso zuenetik edo, bere kasuan, prozedura estrajudiziala akordio gabe bukatu zenetik zenbatuta (6.2.1 art.).

Kasu edo gatazka batean aurreko bi kasuak gertatzen badira (zatikako akordioa eta desakordioa, alegia), aipatutako bi ondoreak emango dira.

74. Horietan, beraz, jurisdikzioa izango da gatazka ebazteko bide bakarra.

Bestelakoan, azaldu bezala, zuzenbide-estatuan norberaren eskubidea gailen-zeko indarraren erabilera debekatuta, epaileen babes exekutiboa ezinbestekoa izanik, bai epaileen euren sententziak, bai GEBE-en bidez lortutako akordioak —behartutakoek borondatez betetzen ez dituztenean—, indarrez gauzatzeko, oso garrantzitsua da mekanismo estrajudizialen fruitua den akordioa eskritura publikora igotzeko aukera aintzatestea (PZLren 517.2.3 art. eta JZPEPLren 12.2 art.). Epaileek libreki GEBE batera jotzea erabakitzen duten gatazkako alderdiei ematen dieten beste berme garrantzitsu baten aurrean gaude: alderdietako batek adostutakoa betetzen ez badu, kaltetuak akordioaren betearazpena eska dezake ondorengo betearazpeneko prozesu zibil batean. Prozesu zibil betearazlearen arauketari jarraituz egingo da.

Orobat inportantea da Epai Botereak GEBE batera jotzen duten herritarrei kautelazko tutoretzaren bidez ematen dien babesa. Araudi berriak kautelazko neurri bat eskatzeko ahalmena aintzatesten dio, dagokion kautelazko prozesu judizialean, GEBE bat hasi duela frogatzen duenari edo horietako baten parte dela esaten duenari (PZLren 722. art.). Berme hori edozein judizioz kanpoko teknikari aplikatzen zaio, baita atzerrian egiten ari direnei ere, betiere kasuan kasuko nazioarteko tratatu edo Europar Batasuneko arauekin bat. Edozein kasutan, PZLren 721-747. artikuluen bitartean jasotzen den kautelazko prozesu zibilaren araudia aplikatu da, kautelazko babesa, orokorrean, eta kautelazko neurri zehatza, eskatzeko orduan. Eskaria kasuan-kasuan erabiltzen den GEBEan akordio bat lortuz gero, berorri exekututzea dagokion tokiko epaitegiaren aurrean egin beharko da. Hori egin ezean, epaile eskuduna ezagutzeko beste irizpide subsidiario bat aplikatuko da: eskatutako kautelazko neurriek eragina duten tokikoa (PZLren 724. art.).

Azkenik, eta beste behin Espainiako legegileak justizia-sistema baten alde benetako apustua egin duela erakusgarri, alderdietako batek edo biek GEBE baten azken emaitza bermatzeko kautelazko neurri bat eskatzen badute, eta hura antzua suertatzen bada, ondorengo prozesu zibileko demanda, kautelazko neurria(k) eman zuen(zituen) epai-organoaren aurrean jarri beharko da, hura akordio gabe bukatu edo/eta alderdi errekerituak proposamena jaso eta erantzunik eman ez eta hurrengoko 20 egunetan.

5. Gibel solasa

COVID ondorengo errealitate berria, zalantza gabe, enegarren bidez, Espainiako Justizia Administrazioa hobetzen ahalegintzeko mementoa izan daiteke. Justizia balio utopikoa denez gero, beti borrokatu behar da beraren lorpenerako. Horretarako gure apustua argi azaldu dugu: ADR tekniken, orain GEBE tekniken, indartzea, gatazkek ebazteko estatuaren sistemaren elementu aktibo bihurtuz, betiere, Epai Boterearen laguntza eta kontrolarekin. Gatazken ebazpenerako mekanismoen dibertsifikazioa aldarrikatzen dugu, herritarrek, libreki, kasuan-kasuan, beren beharrezanez egokitzen zaiena aukeratzeko beta izan dezaten, betiere Epai Botereak legearen betetzea eta haien eskubide subjektiboen errespetua bermatzen duela jakinik. Eraikuntza honi, Ipar Amerikako errealitateetik eratorria, estatuko justizia-sistema deritzogu, edo JZPEPLren hitzetan, «Justiziaren zerbitzu publikoa». Edozein kasutan, haren ikaske-ta zuzenbide jurisdikzional dibertsifikatua deritzon zuzenbidearen arloari dagokio.

Demostratu dugun moduan, JZPEPLP gatazkak ebazteko estatuaren sistema izan behar duen gure formulazio teorikora hurbiltzen da, nahiz eta desberdintasun batzuk ere erakutsi. Ikerketa honekin bukatzeko, bakarrik garrantzitsuenei erreparatuta, berriro azpimarratzen dugu ezen judizioz kanpoko teknikak ezin direla zerrendatu, ezta haien kopurua legeak aurreikusitakoetara mugatu ere. ADR teknika tipikoa den bitartekaritza eta beraren ezaugarrietatik abiatuta (adostasuna, hirugarrenaren aukeraketa, fede ona negoziazioan, prozeduran malgutasuna...), gatazkako alderdiek nahi duten prozedura eraiki dezakete, betiere haien beharrian, ezaugarri eta gatazkarekin bat. Muga bakarria indarrean dagoen legearen errespetua da. Hala ere, eta gure formulazioa eta iritzia malgutuz, onar dezakegu Espainiako historia prozesaleko memento honetan, eta ADR teknikak normalizatzeko bidean, legegileak herritarrei mekanismo zehatzak aurkeztearen aldeko hautua egin izana. Edozein kasutan, herritarren borondate-autonomiaren errespetu osoan egin behar du, muga bakarria legea eta horren errespeturako epaileek egin beharreko lana (GEBE-en laguntza eta kontrola) izanik. Oinarritzeko premisa da.

Bestalde, ezin uka daiteke GEBEak epailetara jotzeko derrigorrezko baldintza bihurtzea teknika hauen ezaugarria den erabateko askatasunaren muga nabarmena dela. Hala ere, alderdiak fede onarekin hitz egitera soilik behartzen direla (inoiz ez akordio batera heltzera!) nabarmenduz, teknika hauen oinarriaren muga onar dezakegu, gure ordenamendu juridikoan, gatazken ebazpen baketsua zabaltze eta normalizatzeko aldera, betiere, tramite burokratiko hutsak bihurtzen ez direla zainduz. Gure ustez, egokiena bakarrik epe batean izatea litzateke, beranduago, teknika hauek normalizatzeko, haien oinarria den askatasun osoa errespetatuz. Esan bezalaxe, askatasunak teknika hauen alfa eta omega behar du izan.

GEBEZen sorrera goraiatu dugu, nahiz eta gatazkak ebazteko sistemaren barnean izan beharko luketen rolak garrantzitsuagoa beharko lukeela mantendu. Horrez gain, gogoratu, *lege ferenda*, bulego judizialaren zati izan behar dutela defendatzen dugula, eta epaitegi bakoitzean bat egon beharko lukeela Justizia Administrazioaren letratuaren gidaritzapean. Gainera, estatu osoko GEBEZek berdin antolatuta egon eta funtzio berberak izan behar dituztela aldarrikatzen dugu, betiere estatuaren eta erkidego autonomoen eskumenak (noski) errespetatuz.

Bereziki txalotzen dugu PZL aldatzea ADR teknikak suspertzeko, bai lehen auzialdian, bai apelazioan, bai exekuzioan ere. GEBE-etara jotzen denean, haien emaitza epaileen kautelazko babesarekin zaintzea ere olagaratzen dugu.

Lana ixteko azken gogoeta bat, gure ikerketa zentratu duen JZPEPLPtik haratago: gatazka juridikoen epai bidez kanpoko ebazpena sustatu nahi bada, Espainiako jurisdikzioa hobetzeko tresna gisa, sistema zilegi, eraginkor eta sostengarri bat sortzeko asmotan, non Epai Boterea erdigunean kokatzen den, derrigorrezkoa da GEBEak osotoro arautzea, hau da, ordenamendu juridikoko arlo guztietarako (zibila, penala, administratiboa eta laborala), haien elementu amankomunak eta berezitasunak aintzatetsiz. Horretarako, ezinbestekoa da, aurretik, EKren 24. artikulua eta Epai Boterea arautzen duen EKren VI. titulua aldatzea, lehenengoak, estatuko babes eraginkorra, eta bigarrenak egitura berriaren (Epai Boterea erdigunean eta GEBEak osagarri moduan) gutxiengoak, arautzeko. Gainera, egungo

EBLOk izan beharko luke aipatutako biak errespetatuz, estatuko justizia-sistemaren lerro nagusiak garatu beharko litzateke. Horrela, Epai Boterearen Lege Organikoa estatuko justizia-sistemaren Lege Organikoa edo Justiziaren Zerbitzu Publikoaren Lege Organikoa bihurtu beharko litzateke.

6. Bibliografia

- AAAA in Levin-Wheller (ed) (1979): *The Pound Conference: Perspectives of Justice in future*, Minnesota, Saint Paul.
- AAAA in Dora Fried Schnitman (koor.) (2000): *Nuevos paradigmas en la resolución de conflictos. Perspectivas y prácticas*, Granica, Bartzelona.
- Almagro Nosete, José (1988): «Alternativas al proceso jurisdiccional», *Boletín de Información del Ministerio de Justicia*, 1489.
- Banacloche Palao, Julio (2021): «Las reformas en el proceso civil previstas en el Anteproyecto de Ley de Medidas de Eficiencia Procesal: ¿una vuelta al pasado?», *Diario la Ley*, 9814.
- Barona Vilar, Silvia (1999): *Solución extrajudicial de conflictos. Alternative Dispute Resolution (ADR) y Derecho procesal*, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Berzon, Michael (1995): «Settlement disputes, without boxing gloves: Alternative Dispute Resolution offers a way to resolve conflict without wrecking business relationships», *American Shipper*, 37, abendua.
- Buendía Cánovas, Alejandro (2021): «Los MASC: la última ocurrencia del legislador para desatascar la Administración de Justicia», *Economist & Jurist*, martxoak 8.
- Bujosa Vadell, Lorenzo Mateo (2021): «Ley 3/2020, de 18 de septiembre, de medidas procesales y organizativas para hacer frente al COVID-19 en el ámbito de la Administración de Justicia», *Ars iuris Salmanticensis: revista europea e iberoamericana de pensamiento y análisis de derecho, ciencia política y criminología*, 1.
- Burgos Ladrón de Guevara, Juan (1980): *El juez ordinario predeterminado por la ley*, Civitas-Universidad de Córdoba, Madril.
- Castillejo Manzanares, Raquel (2021): «Los métodos adecuados de solución de conflictos según el Anteproyecto de Eficacia Procesal», in Raquel Castillejo Manzanares, Ana Rodríguez Álvarez (zuz.), *Debates jurídicos de Actualidad*, Thomson Reuters Aranzadi, Zizur Txikia 2021.
- De Diego Díez, Luis Alfredo (1998): *El derecho al juez ordinario predeterminado por la ley*, Tecnos, Madril.
- Ehrmann, John R., Stinson, Barbara L. (1994): «Human Health Impact assessment (HHIA): the link with Alternative Dispute Resolution», *Environmental Impact Assessment Review*, 14.
- Esparza Leibar, Iñaki (2010): «El modelo clásico de Poder Judicial como elemento indispensable para la consecución de la justicia en la resolución de conflictos. La contribución de la RAC/ADR», in Katixa Etxebarria Estankona, Ixusko Ordeñana Gezuraga (zuz), *La resolución alternativa de conflictos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Fernández Pérez, Ana (2022): «Los métodos alternativos de resolución del litigio como requisito de Procedibilidad», *La Ley. Mediación y Arbitraje*, 10.
- Fiss, Owen M. (1984): «Against settlement», *Yale Law Journal*, 93.
- Goldberg, Steven H. (1997): «Wait a minute. This is where I came in. A trial Lawyer's search for Alternative Dispute Resolution», *Brigham Young University Law Review*, 653.
- Hardy, Stephen, Chapman, Chris, Gibson, Jerry (2003): *ADR in employment law*, Cavendish Publishing Limited, London.
- Ibarra Robles, Juan Luis, Da Silva Ochoa, Juan Carlos (2005): «El principio de unidad jurisdiccional en el Estado Autonómico», in Miguel Ángel, García Herrera, José María, Vidal Beltrán, Jordi Sevilla Segura (koor.), *El estado autonómico: integración, solidaridad, diversidad*, 1 bol., Colex, Madril.

- Lieberman, Jethro K., Henry, James F. (1986): «Lessons from the Alternative Dispute Resolution movement», *University Chicago Law Review*, 3.
- Magro Servet, Vicente (2012): «La incorporación al derecho español de la Directiva 2008/52/CE por el Real Decreto-Ley 5/2012, de 5 de marzo, de mediación en asuntos civiles y mercantiles», *Diario La Ley*, 7852.
- Martín Diz, Fernando (2019): «Nuevos escenarios para impulsar la mediación en derecho privado: ¿conviene que sea obligatoria?», *Práctica de Tribunales: revista de derecho procesal civil y mercantil*, 137.
- Martín Nájera, María Teresa (2005): «La mediación intrajudicial», *Cuadernos de Derecho Judicial*, 5.
- Méndez, Héctor Óscar (2000): «La conciliación. Su revitalización como medio alternativo de resolución de conflictos», *Revista Vasca de Derecho Procesal y Arbitraje*, 1.
- Menkel-Meadow, Carrie (1995): «Whose dispute is anyway? A philosophical and democratic defense of settlement (in some cases)», *The Georgetown Law Journal*, 83.
- Montero Aroca, Juan (1984): «Del derecho procesal al derecho jurisdiccional», *Justicia*, 2.
- Montero Aroca, Juan (2000): *El derecho procesal en el siglo XX*, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Montoro Ballesteros, Alberto (1980): «Conflicto social, derecho y proceso», in *Derecho y proceso. Estudios jurídicos en honor al Profesor Antonio Martínez Berrocal*, Murtziako Unibertsitatea, Murtzia.
- Moore, W. Kenneth (1995): «Mini-trials in Alberta», *Alberta Law Review*, 1.
- Mose, Darek, Kleiner, Brian H. (1999): «The emergence of Alternative Dispute Resolution in Business today», *Equal Opportunities International*, 5-6.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2009): *La conciliación y la mediación en cuanto instrumentos extrajurisdiccionales para solventar el conflicto laboral*, Comares, Granada.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2009): *Análisis crítico del arbitraje laboral y su entorno en el ordenamiento jurídico español*, Civitas-Thomson Reuters, Iruña.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2014): *El Estatuto jurídico de la víctima en el Derecho jurisdiccional penal español*, Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2017): «Bienvenidos arbitraje comercial y de inversiones y resto de mecanismos extrajurisdiccionales al Derecho jurisdiccional diversificado, rama del Derecho que ordena la solución de los conflictos jurídicos», *Arbitraje: revista de arbitraje comercial y de inversiones*, 3.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2018): «Sobre la mejora de la justicia o su concepción en el marco del derecho jurisdiccional diversificado» in Manuel Jesús Cachón Cadenas, Justo Franco Arias (koor.), *Derecho y proceso: liber Amicorum del profesor Francisco Ramos Méndez*, 3 bol. Atelier, Bartzelona.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2021): «Contribuciones al debate sobre la necesidad de constitucionalizar las técnicas extrajurisdiccionales de conflictos en el ordenamiento jurídico español», in Sonia Calaza López, José Muínelo Cobo (zuz.), *El impacto de la oportunidad sobre los principios procesales clásicos: Estudios y diálogos*, Iustel, Madrid.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2022): «Educación para la desjudicialización o una experiencia piloto de coordinación entre el equipo docente y la tutoría de un centro asociado dirigido a fomentar las competencias necesarias para la investigación jurídica mediante el empleo de metodologías activas», in Sonia Calaza, Ixusko Ordeñana (zuz.), *Externalización de la justicia civil, penal, contencioso-administrativa y laboral*, Tirant lo blanch, Valentzia.
- Ortiz Pradillo, Juan Carlos (2011): «Análisis de los principios informadores de la mediación en materia civil y mercantil», *Boletín del Ministerio de Justicia*, 2135.
- Picker, Bennett G. (2001): «ADR. New challenges, new roles and new opportunities», *Dispute Resolution Journal*, otsaila-apirila.
- Ramos Méndez, Francisco (1982): «La quiebra de la justicia», *Justicia: revista de derecho procesal*, 1.
- Ramos Méndez, Francisco (1987): «¡La justicia es un cachondeo!», *Justicia: revista de derecho procesal*, 1.

- Ramos Méndez, Francisco (1987): «Sigue el cachondeo», *Justicia: revista de derecho procesal*, 3.
- Ramos Méndez, Francisco (1987): «Oigan todos: ¡La justicia está podrida!», *Justicia: revista de derecho procesal*, 1.
- Ramos Méndez, Francisco (1987): «Estado crítico de la justicia», *Proserpina: revista de la Universidad Nacional de Educación a Distancia*, 6.
- Requejo Pages, Juan Luis (1989): *Jurisdicción e independencia judicial*, Centro de Estudios Constitucionales, Madrid.
- Rolph, Elizabeth, Moller, Erik, Petersen, Laura (1996): «Escaping the courthouse: private Alternative Dispute Resolution in Los Angeles», *Journal of Dispute Resolution*, 2.
- Sander, Frank E.A. (1976): *Conference on causes of popular dissatisfaction with the Administration of Justice*, National Center for State Courts, Washington.
- Sander, Frank E.A. (1995): «Alternative methods of dispute resolution: an overview», in Michael Freeman (ed.), *Alternative Dispute Resolution*, Dartmouth, Sidney.
- Schiffrin, Adriana (1996): «La mediación aspectos generales», in (Coor. Julio Gottheil, Adriana Schiffrin), *Mediación: una transformación en la cultura*, Paidós, Buenos Aires.
- Six, Jean Francois (1997): *Dinámica de la mediación*, Paidós, Bartzelona.
- Soletto Muñoz, Helena (2017): «La mediación, tutela adecuada en los conflictos civiles», in Ana Isabel Blanco García (ed.), *Tratado de mediación. Tomo I. Mediación en asuntos civiles y mercantiles*, Tirant lo Blanch, Valentzia 2017.
- Subijana Zunzunegui, Ignacio José (2002): «Apunte reflexivo sobre la justicia», *Jueces para la Democracia. Información y Debate*, 44.
- Wang, Margaret (2000): «Are alternative dispute resolution methods superior to litigation in resolving disputes in international commerce? », *Arbitration International*, 2.

